

EUSKARAZ GAZTE

24. LITERATUR LEHIAKETA

orioraia

SARIA

IPUINAK

1. SARIA: **Anarriko Dama**

Iñaki Iturain

2. SARIA: **Lotarako ipuina**

Mikel Iruretagoiena

3. SARIA: **Ofizialki uda da**

Libe Larrarte

Accesita: **Akordeoa**

Ane Etxabe Usandizaga

OLERKIAK/BERTSOAK

1. SARIA: **40 urte**

Mikel Iruretagoiena

2. SARIA: **Telezirkoa**

Garazi Urretabizkaia

3. SARIA: **Mendian gora korrika**

Iñaki Iturain

Accesita: **Lapikoaren aurrean**

Leire Zinkunegi

Anarriko Dama

Iñaki Iturain

—Aita, Mollarrira eramango al nauzu?

—Hara, zertara?

—Bai, Mollarriren historia azaldu behar didazu han bertan.

Aitak amari begiratu zion. Egongelako butakan etzanda zegoen amaren irribarre zabalak ekarri zuen aitaren erantzuna.

—Bai, neska, bai; nahi baduzu, bihar bertan joango gara. Baina nondik etorri zaizu Mollarriko historia jakiteko gogo?

—Nik ere bihar kontatuko dizut zergatik joan nahi dudan hara.

Anek ez zuen espero horren bat-batekoa izango zenik Mollarrira joateko plana, baina gustura zegoen aitaren erantzunarekin; irrikan, Mollarriri buruz entzunak zituen gauza batzuek egiatik zenbat ote zuten jakiteko.

Anek bazekien aitari ondo etorriko zitzaiola etxetik pixka bat ateratzea. Azken bi urteak gogorrak ari ziren gertatzen etxean. Amari gaixotasun madarikatu hura diagnostikatu ziotenetik ezer ez zen berdina.

Gaitz degeneratiboa da amarena, eta dagoeneko ez da gauza tente egoteko, are gutxiago ibiltzeko. Hala ere, amak ez du umorea galdu, ezta bizitzeko gogo ere. Gaitz erdi! Baina aitak orain ordu asko pasatzen ditu etxean. Haren begi-zuloei erreparatuta, Anek bere baitan: *Ondo etorriko zaio aitari biharko buelta!*

Ostiralgau hartan, oheratutakoan, Anek bihokada izan zuen Mollarrin abentura polita hasiko zela berarentzat, eta gau hartan amarekin amets egin zuen, gaixotu aurreko ama eder eta arin harekin: *bihar zelai berdean arineketan...* Irudi goxo harekin lokartu zen.

Goizean aitak esnatu zuen, pertsianak altxatuta. Logelan sartu zen eguzki beteak Aneren aurpegi borobila argitu zuen, eta masailen gorritasuna eta ilaje horail nahasiak nabarmendu.

—Egun on, Ane, jaikitzeke ordua da, txukundu eta jaitsi gosaltzera.

Begiak pixkana zabalduta, leihotik begiratu eta udaberri hasi berri hartako goiza zoragarri zetorrela begitandu zitzaion. Sukaldera jaisten zenerako, laran-

ja-zukua eta larunbateroko txokolatezko napolitana mahai gainean izango zituela bazekienez, bizkor jantzi eta prestatu zen.

—Aita, kotxez joango gara, ezta?

—Baita zera ere... Galdetzea ere! Orain ulertzen dut zergatik esan zenidan Mollarrira eramateko. Eraman ez, joan egingo gara, baina oinez, paseo bat besterik ez da eta. Gainera, haraino ezin da automobilean ailegatu. Oinez joango gara, hondartzan barrena.

Mollarrira

Amari musu bana emanda abiatu ziren aita-alabak etxetik. Hondartzako malekoira jaitsi ziren, handik Mollarraldera abiatzeko. Jende asko zebilen pasealekuan. Lehen ere askotan ateratzen zen aitarekin, oinez edo bizikletan ibiltzera. Azken aldian, hala ere, amaren gaitza zela-eta, ez zuen izan aukera handirik.

Malekoiko jendetzaren artean ibili beharra saihesteko, eta hego haizeak zekarren beroa arintzeko edo, proposamen aitarentzat bitxia egin zuen Anek: *Ur-izkinatik joango gara, aita, oinutsik, oinetakoak erantzita.*

Zalantza momentu baten ondoren, aitak onartu egin zuen alabarena. *Goazen!* Topatu zuten lehenengo aldapatik hondartzara jaitsita, galtzak belaunetaraino jaso zituen aitak: *Pena, txaparroak ekarri ez izana!*

Urertzetik, batere presarik gabe egin zuten hondartzaren luzea, lasai. Isilune baten ondoren, aitak ekin zion.

—Zer dabilkizu buruan Mollarriko kontu horrekin?

—Andereñok lan bat agindu digu: inguruko izen toponimikoak lantzea.

Neska ausartu zitzaion aitari:

—Ba al dakizu zer den toponimia?

—Ez oso ondo, baina bai... toponimiak geografiako izenak aztertzen ditu, ezta?

—Bai, tokien izenak, horixe eskatu digu andereño Rosa Marik, inguruko toponimoak aztertzeko eta toki-izen horien atzean dauden istorioak biltzeko, gurasoei edo aitona-amonei galdetuta.

—A, bai? Zarauzko istorioak biltzeko, e?

—Bai, zer ba? —Ane berehala konturatu zen aitari

poz handia eragin ziola andereño Rosa Mariren planak.

—Hara, Ane, zuk ondo dakizu nola dagoen ama: gure laguntzarik gabe ezin da etxetik atera, ordu asko pasatu behar izaten ditu bertan, eta biok dakigu zenbat gustatzen zaion jendearekin hitz egitea, auzoen kontuak entzutea. Ni saiatzen naiz, baina nekizkien istorio guztiak dagoeneko kontatuak dizkiot; konturatuta nago dagoeneko errepikatzen ere hasia naizela.

Golf zelaiaren ondoko bidean aurrera, hondartzaz luzearen bukaerara heldu ziren, San Pelaio errekaraz. Haren gaineko zubia igarota, beste aldeko egurrezko bankuan eseri eta atsedean hartzeko proposatu zion aita, goiko kanpinera doazen egurrezko eskailerak igotzen hasi aurretik.

Arnasa bere onera ekarrita, Inurritzako padurari begira, aitak: *Ba al dakizu zer esan nahi duen Inurritza hitzak?*

‘Inurri’ ilara luzea bururatu zitzaion Aneri, denak ‘hitz’ baten atzetik, segika, prozesioan. Orduantxe entzun zion aitari: *Hor ez dago inurrik, hitz horretan hurra dago. Garai batean inguru honetan hur-zuhaitz asko zen, eta horrek eman zion izena inguru honi, hurrak, hurritzak.*

Galderari galdera, Anek hartu zuen txanda: *Eta zuk ba al dakizu zer esan nahi duen Zarautz hitzak?*

—Zer esan nahi du, ba? —Anek berehala antzeman zion aitari ez jakinarena egiten ari zela, eta hitz jolaserako bidea ikusi zuen.

—Txara huts, horixe da Zarautz, eta zu ez izan txoro huts, badakit-eta badakizula zer esan nahi duen.

Aitaren barrea ekarri zuen alabaren ateraldiak: *Bai, Ane, bai, garai batean txaradi bat zen hau dena, txara hutsa.*

Elkarri toponimo banaren esanahi ezkutua emanda, gorakoan isilik joan ziren biak. Goia jo bezain laster bota zion aitak: *Zuri ere betidanik gustatu izan zaizu ipuinak entzutea. Orain pauso bat eman behar duzu, hemendik aurrera zuk kontatu behar dituzu istorioak, badakit-eta gauza zarela horretarako. Amak gustura entzungo dizkizu. Hori baino opari hoberik ezingo zenioke egin.*

Itsasoari begira

Goiko zelaitik Kantauri itsasoak eskaintzen duen ikuskizun ederrenetakoa zuten aita-alabek aurrez aurre. Ezker aldean, Getariako arratoia, eta Bizkaia alderaino zabaltzen den kostaldea. Behean, haien azpian, Mollarriko arroka dotorea, itsasora abiatzen den barku bat

bailitzan. Eta eskuin aldean, Iparralderaino luzatzen den kostaldea, itsaslabarrez betea.

Itsasoari begira zeudela, andereñoz gogoratu zen Ane —*aitari asko gustatu zaio andereño Rosa Mariren ideia*— eta aukera baliatu zuen, aitari galdera egiteko:

—Zergatik deitzen diote Getariako mendi horri arratoi?

—Hori San Anton mendia da; horixe du izena. Baina, Zarautzik begiratuta, arratoi itxura hartzen zaio, eskuin aldean, buru txiki hori eta, ezkerrean, bizkar aldea, handiagoa, eta gero, moila, buztana. Arratoi itxura ikusten diote, nonbait.

Horretan zirela, atzetik pauso hotsak entzun zituzten. Atzera begiratu eta —*Hara, Ane, begira zein ditugun hemen!*—. Aneren gelakide bat zen, Antton, bere gura-soekin.

—Bazekiat zertara etorri zareten! —zuzendu zitzaion Anttonen aita Anerenari— Hi alabak ekarri hau hona, eta gu, semeak.

—Bai, eta gu denok toponimiak, ezta? —borobildu zuen Aneren aitak.

—Hortaz, Mollarrira zoazte zuek ere? Nahi baduzue, elkarrekin jaitsiko gara —proposatu zuen Anttonen amak, Aneren amaren osasunaz galdetu eta gero.

Goiko zelaitik Mollarrira bitarteko bidea interesgarri joan zen, istorioz betea. Lehenengo, Aneren aitak heldu zion goian osatu gabe utzitako istorioari.

—Zarautzik Getariara begiratzen jarrita, denek ez dute ikusten arratoia...

Bi gaztetxoek begiratu eta galdetu zien:

—Ba al dakizue nor zen Jorge Oteiza?

—Nik bai —Anek.

—Nik ere bai —Anttonek.

—Eta zer zen, ba, Oteiza?

—Eskultorea —batek.

—Apaiza —besteak.

Horretan ez zetozen bat. Adostasunaren bila, beste galdera bat luzatu zien:

—Non bizi zen Oteiza?

—San Pelaion —biek batera.

—Jorge Oteiza eskultorea izan zen, bai, eta apaiz kutsu pixka bat ere bazuen: profeta bat izan zen. Irudimen handia zuen, eta horregatik ekarri dut orain hizpidera, ideiak sortzeko zeukan ahalmen itzel hura toponimiara ere ekarri zuelako, nolabait.

—Zer asmatu zuen, ba? —galdetu zion alabak.

—Jorgek ez zuen ikusten arratoi bat San Anton

mendian, baizik eta balea; jendeak animaliairen bizkarra ikusten zuen aldean berak burua ikusten zuen, eta alderantziz: itsasora doan saguaren ordezt, portura datorren balea.

Anttonen ama getariarra izanik, interesez ari zen jaioterrikoa entzuten:

—Ba, hara, nik ez nekien hori, ez dut inoiz entzun, baina egia esan, Getaria herri arrantzalea izanda, askoz egokiagoa da, bertako historiari eta izateko moduari lotuagoa, San Anton mendia balea batekin irudikatzea. Oteizak buelta ederra eman zion irudiari.

—Bai, horixe behar izaten da askotan: ikuspegia aldatzea, gauzei ohikoa ez den beste alde batetik begiratzea —erantsi zuen Aneren aitak.

—Harrizko balea hartako talaiatik egongo ziren, orduan, begira, erne-erne, itsasoan haragizko balea noiz agertuko, ezta? —jakin nahi izan zuen Anttonek.

—Bai, eta handik pasatzen zitzaizen abisua, balea ikusitakoan, arrantzaleei, irrintzika edo suaren kearen bitartez. Orduan ez zeukaten mobilik —bere amak.

—Gu orain gauden mendiak ere Talai Mendi izena du, eta horrexegatik da: hau ere itsasora begira egoteko talaia zelako —borobildu zuen Anttonen aitak.

Bi gaztetxoek konplizitatez begiratu zioten elkarri, gustura zeuden ikusita eskolatik ekarritako gaiak gurasoak ere inplikatu zituela.

Mollarri iritsita, bi familiak bakoitza bere aldetik ibili ziren, batetik bestera, arrokek gordea duten historia hausnartzen. Anek ez zuen entzun aitaren ahotik toki haren gainean ezer lehendik ez zekienik. Andereñok gelan kontatua zien Mollarri gerra baino lehenago martxan eduki zutela, portua izan zela, Andazarrateko burdin minerala Ingalaterra aldera eramango zuten barkuak amarratzeko moila. Eta nola jaisten zuten mea hura Aiako menditik itsas arroka hartaraino bagonetetan sartuta, kable batetik zintzilik, orain eski-estazioetan jendea bezala.

Mollarriko arroka baten gainera igo eta, ekialdera begira jarrita, galdera egin zion aitak: *Ba al dakizu zein den amonaren baserria?* Ane bila hasi zen aurrean zeukan paisaia, itsasoa lurrarekin batzen zuen koadro hartan. Orioko Itxaspe baserriaren bila zebilen, bazekien itsaslabar baten gainean zegoela, Kukuari menditik itsasora jaisten den malda izugarri batean kokatuta.

—Bai, hura da, hura da! —asmatu egin zuen. Amarekin hainbat aldiz egona zen amaren amaren jaiotetxean, amonarenean. Hari begira zeudela, base-

rriaren behe aldean, lehorretik itsaso aldera zabaltzen zen arroka Mollarriren antza hartu zion, arroka ia berdina irudituz zitzaion, txikiagoa, eta galdera egin zion aitari.

Anarriko arroka

—Eta arroka hura, aita, hark zer izen du?

—Hari Anarri deitzen diote.

Anarri entzunda, segituan lotu zituen Anek amonaren baserriaren azpiko Anarri arroka hiru izenekin: amaren Ana Mari, amonaren Mariana, eta berea, noski. *Anarriko hiru damatxo* bururatu zitzaion dama gazteari.

Etxera bueltatzeko plana egiten hasita zeudela, berriro elkartu ziren Anttonekin eta haren gurasoekin. Haiekin hizketan zirela, Anttonek keinu egin zion Aneri biok taldetik pixka bat bereizteko. Arroka baten gainera igo ziren. Handik ondo ikusten zen nola jaisten ziren garai batean menditik poste batetik bestera lotutako kableak, eta imajinatu zuten nola ekartzen zituzten bagonetak kable haietatik zintzilik.

Anttonek aita Aiakoa du, hango baserri batekoa, eta hari entzundako istorio harrigarria azaldu zion Aneri.

—Ane, ezetz asmatu zer gertatu zitzaion hemen Aiako mutil bati!

Aneren irribarreak atea zabaldu zion kontakizunari.

—Bagoneta horiek, leku batzuetan, lurraren ondo-ondotik pasatzen ziren; behin, Aiako baserriar gazte bat zintzilik jarri zen haietako batetik, bi muinoren arteko zulo handi bat alde batetik besteraino pasatzeko. Zintzilik zihoala, argia joan eta bagonetak gelditu egin ziren. Mutila horrelaxe egon zen, handik zintzilik, gehiago ezin izan zuen arte, eta handik amilduta bukatu zuen bere bidea.

Anek astindu ederra hartu zuen, lagunak kontatu zion istorio tragikoa entzunda. Aitaren ahotsak ekarri zuen bere onera: *Goazen etxera, laster bazkaltzeko ordua da, ama zain izango dugu.*

Eguerdia aurrera zihoan eta, Anttonen aitaren automobilean denak kabitzen zirenez, herrira denak elkarrekin jaistea erabaki zuten. Erabaki ona hartu zuten, autoa zegoen tokira zihoazela euria hasi baitzien.

—Hauze bai xelebrea, zeruan hodei bakarra eta azer nolako zaparrada bota digun! —Anttonek, korrika egiteari utzi gabe. Blai iritsi ziren aparkalekura. Ane mutilaren ondoan eserita jaitsi zen, leihatilatik laino bakar hari begira, Anarriko arroka izena gogoan zuela.

Amarekin kontu-kontari

Bazkal ondorena hitz jario handikoa izan zuen Anek. Mollarriko kontuak azaldu zizkion amari, handik ikusitakoak, han entzundakoak... Aitak keinu egiten zion amari, alabaren poz aurpegia ikusita. Halako batean, keinu Aneri egin zion, horretan segitu zezan animatzeko. *Barkatuko didazue, baina ni erretiratu egingo naiz lo-kuluxka egitera*. Ama-alabak bakarrik geratu ziren. Anek kafea prestatu zion amatxori, eta kontu-kontari jarraitu zuen.

—Ama, ba al dakizu zer gertatu zen behin Mollarri Andazarratik burdin mineral bezala beteta jaisten ziren bagoneta haietako batean? —amaren ezetzak alabaren segida ekarri zuen.

—Aiako mutil bat zintzilik gelditu zen bagonetatik, kablea ez aurrera ez atzera geratuta. Bere azpian sekulako zuloa zeukan. Indarrak ahitzen ari zitzaizkion. Bere azkena ere gertu ikusi zuen. Halako batean, eskuak bagonetatik askatu eta erortzen hasi zen; orduan, arrano handi bat agertu zen zeruan, erorketan mutikoari atzaparrekin besoen azpitik heldu eta hegan hasi zen, gora eta gora, laino artean galdu zen arte.

Amak ere horixe sentitu zuen, norbaitek besoekin heldu eta leihotik kanpora hegan eraman izan balu bezalako sentsazioa. Eta gogoan hori zuela, alabari begiratu zion.

—Istoria polita, Ane. Noizbait entzuna nuen antzekoa, baina zureak bukaera politagoa du.

Amaren hitz adeitsuek adoretuta, kontu kontari jarraitu zuen Anek.

—Ama, ba al dakizu Getariako arratoia ez dela arratoia?

—A, ez? Zer da, ba, xagua?

—Ez. Balea da.

—A, bai? Zeinek esan du hori?

—Aitak esan dit Oteizak esan zuela.

—Hori Oteizak baino lehenago esandakorik bada. Shanti Andiak zioen hori, Pio Barojaren nobela batean —eta liburuz josita zegoen apalategira joateko eskatu zion alabari—. Bilatu hirugarren apalean, hor behar du.

Anek segituan eskuratu zuen liburua, 'Las inquietudes de Shanti Andia', eta amari eman. Amak irakurri berria izango zuen aitak erregalatutako liburua, berehala topatu zuen eta orrialdea, eta ozen irakurri zion alabari: "El viento volvía de nuevo; comenzamos a navegar despacio. Cruzamos la costa alta y escarpada de Orio,

pasamos el arenal de Zarauz y dejamos atrás el monte de San Antón, que se dibujaba sobre el mar como una ballena de color gris".

Eta jarraitu zuen: *Oteizak ere irakurriak izango zituen Barojaren liburuak, Ane, kultura horrelaxe egiten da, aurrekoak egindakoaren gainean eraikitzen du hurrengoak*.

Gustura entzun zituen Anek liburuko hitzak amaren ahotik: Getariako balea, Zarauzko hondartza eta Orioko labarrak, ez zen kokaleku txarra amari idatzi nahi zion istorioarentzat. Horixe zebilkion bueltaka buruan. Anarriko arroka pentsamendua etorri zitzaion Aneri. Ana Harri hari lotuta, txikitan irakurritako piratei buruzko komikiez oroitu zen. Baina Anek ez zion arroka aipamenik egin amari. Erabakia zuen: *Anarriren ipuina idatziko dut, Ana Harrirena; horixe egingo diot amari opari, Anarrik ekarriko dio istorio miragarria*.

Amak berehala antzeman zion Aneri haren buruan zerbait ari zela sortzen. Inoizko kaferik zapoetsuena iruditu zitzaion alabak prestatutakoa.

Gau hartan, oheratu aurretik, Ane idazten jarri zen. Koaderno gorria atera zuen mesanotxeko tiraderatik, hamalau urte bete zituenean amak oparitu ziona. Anarriren istorioaren hasiera nahi zuen paperean, baina ez zitzaion ganorazko ezer bururatzen eta, zapuztuta, utzi egin zuen.

Loak hartu aurretik, eguerdiko zaparrada etorri zitzaion gogora, Mollarriren gaineko zelaian zirela harapatu zituena, eta loaren muga-mugan, pentsatu zuen hodei bakar hark deskargatutako ur-tantak lodi-lodiak zirela, hitzez beteak, eta ilea ez ezik barrena ere blaitu ziotela, nahiz eta hitzak oraindik nahasita zebilzkion.

Getaria aldera bizikletan

Igandea lainotuta esnatu zen. Gosalduta ondoren, bizikleta hartzera zihoala, uaxapa jaso zuen. Antton zen, ea buelta bat emango zuten elkarrekin. Anek bizikletarena aipatu orduko, Anttonek Getaria aldera joateko plana egin zion. Munioan geratu ziren, hondartzaren gaineko miradorean.

Biak elkartuta, Getariako bidea hartu zuten. Bigarren tunela igaro zutenean, Anttonek gelditzeko keinua egin zion Aneri. Bizikletak txoko batean utzita, pasealekutik arroketa zihoazen eskailerak jaisten abiatu zen mutila; metro batzuk jaitsita atzera begiratu zuen.

—Etorri, Ane, gauza bat erakutsi nahi dizut.

Neskak ez zuen zalantzarik izan. Laster ziren behean biak. Arroka zabal handi baten aurrera iritsi ziren. Haitz hartara igotzeko, eskua luzatu zion Anttonek. Mutilaren eskutik helduta metro bat igo zuen, baina oso gora igo zela iruditu zitzaion. Arroka azpian, hondartza txiki baten antzeko kala bat zabaltzen zen itsaso aldera, errepidetik ezkutuan.

—Ba al dakizu nola esaten dioten arroka honi? —eta erantzuteko astirik eman gabe— Hau Praileaitz da; jendeak esaten du garai batean fraileak etortzen zirela komentutik hona bainatzera.

Laino artetik eguzki goxoa agertu zen zeruan. Haren epeltasunean, eseri egin ziren Praileaitzen, eta fraideen garai bateko ezkutuko ibilerez aritu ziren hizketan.

Eguzkia eguerdian zegoen. Berotasuna baretzeko edo, Anttonek oinetakoak erantzi eta oinak busti zituen, uretan sartuta: *Ez dago horren hotza ere, laster murgiltzeko moduan egongo da.*

Ane ere animatu zen arrokatik hankak luzatuta, oinak uretan sartzen. Plisti-plasta egon ziren biak. Antton hitzun zegoen, aspaldiko kontuak ekarri zituen, zaraustarrek eta getariarrek balea bat harrapatuta, hura norena zen erabakitzeko eztabaidan denbora asko pasatu eta balea usteldu zeneko kontuak.

—Ikusten duzu hango arroka hura? Horregatik jarri zioten Balearri izena, haren aurrean harrapatu zutelako.

—Balearri? Hau da hau harri pila: Mollarri, Anarri, Balearri!

—Bai, bertso-eskolarako gai polita dugu; zortzikoa osatzeko hitz errimatu bakarra falta.

Anek burutazioa izan zuen:

—Harrigarri, horixe hitz egokiena.

—Horixe, harrigarri, ematen du harrizko herria dela gurea.

Hori esanda, Antton isildu eta Aneri begira-begira geratu zitzaion:

—Harrigarriak zure begiak dira. Itsasoaren kolorekoak dituzu, Ane, berdin-berdinak.

Anttonen hitzezko opariak adoretuta, Anek eskua luzatu eta buruko ile kixkurak kixkurtu zizkion: *Eta zure ileak orain itsasoa ematen du, haserretzen denean altxatzen diren olatuekin harrotua.* Ondoren, isilik geratu ziren biak, elkarri begira.

Akordatu zirenerako, eguerdia aurrera zihoan eta, oinetakoak jantzita, gora egin zuten, ez aurretik elkarri

agindu gabe udan arroka hartara itzuliko zirela berriz.

Bizikletak hartu eta atzera bideari ekin zioten, etxe aldera. Herrian, komentuaren aurretik pasatu zirenean, Anek bestelako sentimendua izan zuen fraideentzat: *Hauei ere gustatzen zaie itsasoa bainatzea, ez dira horren desberdinak.*

Igandeko bazkal ostea ere larunbatekoaren antzera joan zen: ama-alabak berriketan. Anek izan zuen amari zer kontatua. Balearnak ezagutzen zituen amak, baina Anek ederki freskatu zizkion garai bateko kontu haiek denak: fraideak, toki ezkutua, itsasoa, baleak... Kontu-kontari jarduteko iturri handia gertatu zitzaion Aneri eguerdiko txangoa. Amak gogo betea sumatu zion alabari haren kontakizunetan, poztasun handia. Hura zergatik ote zen ere bururatu zitzaion.

Amak ezin izan zion eutsi, eta masailak kresal usaineko malkoz busti zitzaizkion.

Amaren malkoek aztoratuta, Ane kuluxkatxoa egitera erretiratu zen, amatxori musu emanda. Mesan-otxetik kolore gorriko koaderno atera zuen. Han, Praileaitzeko arroka gaineko kontutxoak apuntatzen aritu zen. Gero loak hartu zuen; baina ez zuen loaldi goxoa izan, behin eta berriz zetorkion bagonetatik eroritako mutilaren irudia. Behin eta berriz saiatu zen arranoaren irudia ekartzen: mutila arranoaren atzaparretan zintzilik laino artean galtzen, bizirik; baina errealitatea gailentzen zitzaion irudimenari, mutila erortzen ikusten zuen. Halako batean, ordea, dena aldatu zen: arranoa agertu zitzaion, mutilari ondo eusten, gora eta gora, hegan. Orduantxe esnatu zuen iratzargailuak.

Eskolan andereñorekin

Astelehen goizean, Anek ez zuen gogo handirik eskolarako. Kostatu zitzaion jaikitzea ere. Goiza, hala ere, arin pasatu zitzaion; arratsaldeko saioa iristeko desiratzen zegoen, Rosa Marirena. Gelako batzuk kontu berri askorekin joan ziren eskolara, asteburuan lana fin eginda.

Eskola amaitu zenean, Ane andereñorekin hitz egiteko asmotan, zain geratu zitzaion pasilloan.

—Andereño, zure laguntza behar dut amatxori istorio bat kontatzeko, ipuin bat asmatu behar diot, haren baserriaren azpian dagoen arroka buruz; harkaitzak Anarri izena du eta gure amak Ana Mari. Bi izenak lotzen asmatu behar dut.

Laguntza eskatze huts hura opari galanta izan zen irakasle gazte literatur zalearentzat.

—Ane, nahi baduzu, bueltatxo bat emango dugu elkarrekin.

—Zergatik ez?

Hondartza aldera abiatu ziren.

—Hara, Ane, pozten naiz zuregan istorioak sortzeko egarria ikusita. Nik lagunduko dizut egarri hori asetzen, nahi baduzu, baina badakit hori zorerrek egingo duzula ondoen. Nik orain ospitale batean gertatu zena kontatuko dizut.

Anek zabal-zabal jarri zituen bere zentzumen guztiak.

—Ospitaleko logelan bi gaixo zeuden ohe banatan. Gelak leiho bakarra zuen. Leiho ondoko ohean zegoen gaixoak handik ikusten zuena kontatzen zion besteari: *Eguraldi ederra zagok gaur ere, udaberria ederki antzematen duk jardinean, arbolak lorez jantzita zaudek; gazteen arropan ere ondo nabaritzen duk aurtengo hotzak joan zaizkigula, egunetik egunera gonak motzagoak dituk. Hara, bi gazte zatotzik paseoa eskutik helduta, bankuan eseri dituk... Aupa, musuka hasi dituk...*

Musuaren aipamenak Praileaitzera eraman zuen Ane, han Anttonekin pasa zuen momentu hartara. Andereñoak jarraitu egin zuen.

—Horrelaxe ziren kontuak ospitale hartan, eguna joan eta eguna etorri, udaberria izan edo negu gorria. Maiteminduen istorioa ez bazen, kalean zebilen gizon zahar batek gogorarazitako aspaldiko gerrari buruzkoa izango zen; baina egunero zeukan zerbait kontatzeko.

Leihorik ez zuenari, hala ere, pixkanaka herra hasi zitzaion pizten, gero eta handiagoa, bere begiez ikusi nahi zuen kanpoko jardinen edertasun guztia, han gertatzen zirenak, bitartekorik gabe. Ez zuen etsi harik eta aldameneko logelako leiho ondoko ohean jarri zuten arte. Han, bakarrik geratu zenean, burua pixka bat altxatu eta leihotik begiratu zuen. Izugarrizko ustekabea hartu zuen: handik bi metrora zegoen pareta gris itsusi bat besterik ez zuen ikusten.

Ane aho zabalik geratu zen bukaera harekin, lelotuta bezala.

—Ane, ospitale hark ez zuen jardirik, leiho ondoko gaixoak asmatu egiten zion dena besteari.

Ane artean bere onera etorri gabe zegoela, borobildu egin zuen Rosa Marik: *Zuk amarekin horixe egitea daukazu. Zure ama etxean dago. Zu zara haren leihoa.*

Bi herrien istorio erromantikoa

Aurretik aitak esandakoa berriro andereñoren ahotik entzunda, Anek ez zeukan zalantza handirik zer egin

behar zuen, eta leiho izateko gogoz etxeratu zen, baina sartu eta ama ikusi orduko konturatu zen ez zela horren erraza izango.

Aitak afaria prestatu eta mahaiaren bueltan eserita, aurreneko aukeran ekin zion Anek.

—Ama, ba al dakizu non dagoen Beobate baserria?

—Jakingo ez dut, ba, txikitan askotan izan naiz ni han. Aitarekin joaten ginen, sagar bila, etxeko dolarean sagardoa egiteko.

—Ba, orduan, akaso zuk ere entzuna izango duzu gaur Nikolasek eskolan kontatu diguna.

Nikolas baserriko semea da, Beobatekoa, Orioko gainean dagoen etxekoa. Handik bi aldeak ikusten dira ondo, Orio eta Zarautz. Txikitatik elkarrekin dabilta eskolan Nikolas eta Ane. Gaur eskolan mutilak azaldu duen istorioak txundituta utzi du neska.

—Nikolasen baserritik ondo ikusten da Orioko errioa. Gaur kontatu digu ibaiak duen izena zergatik duen, haren esanahia azaldu digu, bere amonak esaten omen du askotan. Oria izena ibaiaren bi aldeetan dauden herrien izenak batuta osatu zela esaten du, Orio eta Aia hitzak elkartuta sortua dela, eta biak batzeko balio duela.

—Nola, nola? —harrituta, amak.

—Bai, Orio-ri lehen bi letrak eta Aia-ri azken biak hartuta osatu zuten Oria izena.

—Hara, zer polita —atera zitzaion amari, istorioa adi-adi entzun eta gero— Zer erromantikoa —gaineratu zuen—: bi herri ezkontzen dituen ibaia.

—Egia da —onartu zuen aitak—; gainera, Orion erri esaten diote Oriari, eta Aian berriz, ibaia; ematen du batzuentzat arra dela eta besteentzat emea.

Aste polita joan zen, istorio politak azaldu ziren eskolan. Gustura aritu ziren aztertzen inguruko leku-izenen jatorria. Aneren gogoan ondo iltzatuta geratu ziren andereñoren hitzak.

—Leku-izen batzuek ez dute irudimen handirik eskatzen zer adierazi nahi duten ulertzeko: Mendibeltz, Pagoeta eta Talai Mendik esanahi jakina dute, ez diote zalantzari lekurik uzten. Beltza, pagoa eta talaia ikusiko ditugu denok leku horietan, ezta? Baina Azken Portuk? zer esan nahi du hitz horrek? Portua ote zegoen, ba, itsasotik bostehun bat metrora dagoen auzoan? Haraino iristen ote zen ba itsasoa?

Aneri Azken Portuk ere Anarrira eraman zion gogoan: *Anarri ere portu izan ote zen ba, Mollarri bezala?*

Ostirala zen, eskolatik aterata, Anttoni itxoin zion Anek.

—Bihar Oriora joango naiz, amonaren baserrira. Nahi al duzu nirekin etorri? Jakin behar dut zergatik den Anarri baserriaren azpiko arroka, zergatik duen izen hori.

Biharamuneko plana Anttonekin ondo lotuta, gustura joan zen etxera. *Atzo leiho ederra zabaldu nion amari, baina biharkoa hobe izango da.*

Kukuarri mendira

Larunbat goizean jaiki eta, gosalduta, etxetik ateratzeko prestatu zen.

—Amatxo, banoa. Antton ere etortzekoa da nirekin amonaren baserrira.

—A, bai! Hobe duzu, bai, bakarrik baino. Nola zoazte?

—Ez dakit. Onena trenez joatea izango dugu, Kukuarrira joan nahi dut, Anttonek ez du ezagutzen mendia, eta gero handik Itxaspera jaitsiko gara; bisita egingo diogu amonari.

—Kukuarrira? Kontuz gero, badakizu zer gertatu zitzaion han inguruko gizon bati zezenarekin, ezta?

—Bai, ama, egon lasai, ez zaitez kezkatu, ondo begiratuko dugu non gabiltzan.

—Orduan onena biontzat ogitarteko bana eramatea duzu, bide pixka bat baduzue-eta hara. Momentu batean moldatuko ditugu.

Amatxok lagunduta, agudo prestatu zuen hamaiketakoa eta bizkar zorroan sartu. Ane amari musu ematen hasi zitzaionean, amak:

—Kukuarrira zoaztenez, kukuarena jakingo duzu, ezta?

—Kukuarena?

—Bai, esan ohi da kukuaren urteko lehen kantua patrika beteta harrapatu behar zaituela, horrela urte aberatsa izango duzula.

—Hortaz, dirua behar dut; paga eman behar didazu.

—Paga ez, Ane; eramanezaz patrikan zure koaderno gorria, ea hura ondo gizenitzen laguntzen dizun kukuak!

Anek poltsan koaderno eta lapitza sartu eta, begi bat kliskatuz, amari keinu eginda, kalerako bidea hartu zuen.

Tren-geltokira iritsi zenerako, Antton bertan zen. Trenak Aia-Oriora iristen behar zituen bost minutuko bidean, Anek justu izan zuen denbora Anttoni kukuarena azaltzeko. Mutilaren musuan irribarrea marrazteko behintzat balio izan zion ateraldiak.

Tren-geltokitik atera eta erriaren gaineko zubia igarotzen hasi ziren. Zubi erdian geldituta, ura goitik behera zekarren Oriari begira, galdera egin zion neskak: *Ez al duzu sentsazio arrarorik sentitzen?* —amaren hitzak zituen gogoan— *“Aia eta Orio ezkontzen dituen ibaia”... ematen du boda batean gaudela.*

Zubia igaro eta Orion sartu ziren. Eliza ondoko karkaratik abiatuta, Goiko Kaletik barrena, kanposantu ondotik pasatu ziren.

—Hortxe dago gure aitona —gogora ekarri zuen neskak. Handik gora, baserri baten ondo-ondotik pasatu ziren. Etxearen ate nagusiaren gainaldean baserriarena izan litekeen izena-edo ikusi zuen Anttonek.

—Hara, Andu, hori ez al da idazle baten izena?

Erraz jarri zion mutilak:

—Izena ez, idazleak ezizena du Andu, hori haren familiaren baserria izango da, bai. Uste dut hemengo dela.

Baserritik gora, ordu erdia zuten goraino. Baso txiki bat igaro zuten, gero, zaldiak trostan libre zebiltzan zelaia. Hura zeharkatuta, azken malda pikua besterik ez zitzaien falta tontorrerako. Hamar minutuan goian ziren, Kukuarriko gailurrean.

—Kukuaren harria da gurutze hau, Pagoetakoaren berdina —Anek.

Kukuaren harria ukitu ondoren, hegoaldera begira jarri ziren. Zerua garbi-garbi ageri zen eta aurrean ikuspegi paregabea zuten. Atzeko planoan, Aizkorri eta Izarraitz; gertuagokoa, Ernio eta Pagoeta; eta zapaltzen ari ziren mendiaren azpiko ibarrean, sigisaga, Oria ibaia, bi herri bereizi ez baizik eta batu egiten zituen, itsasorako bidean.

Mendiek eta ibaiak eskainitako ikuskizuna ondo dastatu ondoren, Anek bizkar zorroa zabaldu eta ogitartekoak atera zituen.

—Tori, gosea ere izango duzu, ba?

Anttonek jarri zuen aurpegiak dena esaten zuen, ez zen hitzik behar. Lehenengo hozkada emanda:

—Mmm... Zer goxoa! Zuk egin al duzu tortilla hau?

—Bai, nik egin dut. Bueno... amak lagunduta... Bueno... bion artean egin dugu.

Kukuaren kukua

Ez zuten denbora askorik behar izan ogitartekoaz beste egiteko. Anttonek Aneri begiratu zion, serio: *Ogi apurra geratu zaizu ezpainean.* Anek ogi apur bat zeukan ezpain ertzean itsatsita. Antton hura garbitzen

hasi zitzaion. Eta zer egiten ari zen konturatu gabe, musu bat eman zion.

Anek atzera egin zuen. *Baina, baina, zer ari zara?* Anttonen ahaleginak ustekabeen harrapatu zuen neska. Mutilak, aurpegi gorritua ezkutatzeko, beste aldera begiratu zuen.

—Goazen hara! —moztu nahi izan zuen Anek momentu deserosoa, eta altxatu eta gurutzearen beste aldera joan ziren, itsaso aldera. Han, parapentean salto egiteko erabiltzen duten belardian eseri zen Ane, eta Antton aldamenara konbidatu, belar gainean eskuarekin bi astindutxo emanda. Ordurako, mutila bere onera etorria zen.

Aneren begiradak ezker aldera egin zuen, Zarautz aldera. Atzean Getariako San Anton mendia agertu zen. Anek balea eder bat ikusi zuen. Begirada ekartzen hasita, Zarauzko kanpinaren azpiko Mollarrira etorrira, mutiko baten eta arrano baten irudia ikusi uste izan zuen. Begirada hurbiltzen segitu zuen. Zeuden lekutik ezkutuan zen Itxaspe baserria, baina haren azpiko labarraren bukaeran, Anarriko arroka ikusi zuen. Rosa Mariz gogoratu zen.

Donostia aldera begiratuta, proban jarri zuen mutila: *Ba al dakizu nola deitzen dioten Donostiako arrantzaleek beren herriari?* Galdera-tranpa iruditu zitzaion mutilari eta badaezpada isilik geratu zen. Anek lagundu egin zion, pista emanez:

—Zuk imajinatu Donostiako arrantzalea zarela eta baporean itsasotik lehorrera zatozela. Lau mendi dituzu aurrez aurre: Igeldo, irla, Urgull eta Ulia. Bai, ezta? —Anttonek pista gehiago nahi zituen— Lau mendien artean hiru zulo dituzu, Antton, hiru txulo.

Irutxulo izenarena argituta, proposamena egiten ausartu zitzaion:

—Antton, ipuina idatzi behar dugu bion artean.

—Bai zera! Nola idatziko dugu ba bion artean?

—Zarautzen badira bi mutil hori sarritan egin dutenak.

—Bai, baina haiek anaiak dira eta gainera bizkiak.

—Tira, gu ez gara anaiak baina saiatsu gintezke, zergatik ez?

—Ez, Ane, ez, seguru honezkero buruan idatzita daukazula ipuina.

—Egun hauetan sekulako kontu pila ikasi dugu. Oraintxe konturatu naiz: hemendik behera begiratu eta ikusten ditugun tokiak istorioz beteta daude. Horietakoren bat idatzi egin behar genuke andereñorentzat;

adibidez, arrano batek hegan eman zuen Aiako mutikoarena. Rosa Mariri gustatuko zaio.

—Hara, zuk ez dakizun bat kontatuko dizut

—Anek berari aitak kontatutakoa azaldu zion Anttoni:

—Aspaldi batean, gure aita gaztea zela, behin Kukuarrira etorri zen lagunekin, eta beherakoan, Itxaspe baserriaren parean zirela, neska gazte pertxenta bat atera zitzaion etxetik. Aita neskari begira zegoela, orduantxe bertan kukuak kantatu omen zien.

—Eta zuen aita aberastu egin al zen?

—Nire ama da egun hartako neska gazte hura. Hori dabilkit behin eta berriro buruan bueltaka. Hori eta Anarriko arrokaarena. Amonak Mariana du izena, amak Ana Mari, eta niri Ane jarri zidaten. Hiru belaunalditako emakumeak eta arroka bat antzeko izenarekin.

—Hor istorio ederra daukazu, Ane, banekien nik buruan bazebilkizula zerbait —adoretu nahi izan zuen Anttonek.

Ustekabeko musua

Eguerdiko eguzkia goxatzeko, Anek etzan egin zuen bizkar aldea belazean. Gauza bera egin zuen Anttonek. Handik gutxira, neskak eskua laztandu zion. Oraingoan Ane izan zen burua pixka bat altxatuta ausartu zena. Musu eman zion ezpainetan, ogi apurren aitzakiarik gabe. Eta, ezpainak ezpainekin zirela, kukuaren kantua entzun zuten: “kuku, kuku...”

Musua luuuuuze joan zen, eztia. Begiak itxita, Anek pentsatu zuen amets bat bizitzen ari zela; esnatzeko-edo, atzamarrekin ileak kixkurtu zizkion Anttoni, Praileaitzen bezala.

—Ea, goazen, zure buru gaineko olatu horiek itsasora eraman behar ditugu.

Kukuak berriro jo zuen: “kuku, kuku...”. Anek eskua poltsara eraman eta barruan koadernoaren forma atzeman zuen, eta iruditu zitzaion handitzen ari zela, puzten bezala. Bi gazteak zutitu egin ziren; abiatzekotan zirela, hodei bat agertu zen zeruan. Hodei borobila zen, forma bitxiak zituen, bete-betea zirudien. Hari begira geratu ziren biak. Anttonek jaitsi zuen Ane lainotik.

—Goazen, bestela harrapatu egingo gaitu, Mollarrin bezala.

Gorakoan ez bezala, beherakoan kostaldetik hartu zuten kukuaren harritik jaisteko, hondartzarako bidea. Malda handi samarra gaindituta, Itxaspe baserria agertu zitzaion begi-bistan, itsasorainoko labarraren gainean.

—Horixe da gure amaren baserria, bere jaiotetxea.

—Toki ederra da bizitzeko ere! —bota zuen Anttonek. Ane begira geratu zitzaion mutilari. Ez zekien seguru zer eragin zioten gehiago Anttonen hitzek, harridura edo poza.

Bat-batean, euria hasi zuen, zirimiria. Anek besoak zabaldu zituen, aurpegian irribarrea alderik alde; eta garbi ikusi zuen amarentzako ipuinaren izenburua: *Anarriko Dama*. Amatzorentzako leihoa zabaltzen ari zela otu zitzaion.

Baserriko atarira iritsita, amaren jaiotetxeko atea jo zuen, kas-kas. Inor agertzen ez zela eta, *Oilategian izango da, amonak asko maite ditu oiloak*.

Amonaren baserrian

Atea zabaldu zuen. *Aurrera, Antton, sartu*. Sukaldean begiratu, inor ez, eta korridorearen amaierako atea irekita, baserriaren atzealdetik kanpora egin zuten, itsaso aldera. Ordurako atertua zen zirimiria. Baratza dotore jantzita ageri zen, lore ederrez apainduta. Baratzetik barrena, oilategirantz abiatu ziren. Ate ondora ailegatu zirenerako, amona konturatuta zegoen baten bat zebilela han eta topo egin zuten ate ondoan.

—Hara, begira zein dugun hemen, Ane, laguna ere ekarri duzu eta! —amonak gogoz estutu zuen biloba beso artean— Zer moduz gara, nire txiki polit hori?

Anek, Anttonen aurkezpena eginda:

—Kukuarrin izan gara. Kukuak kantatu digu han ginela.

—Ondo zarete, orduan, urte aberatsa izango duzue! Hara, zatozte sukaldara, zerbait prestatuko dizuet-eta.

—Ez, amona, ogitartekoa jan dugu tontorrean ginela.

—Hortaz, eseri egingo gara —bi eskuekin gerriari helduta—. Ai, nire gerri hau! Urteak ez dira alferrik pasatzen! Hortxe jarriko gara —belarra ondo moztutako zelaitxoan dagoen bankua seinalatu zuen. Hantxe eseri ziren, itsasoari begira.

—Eta, zer berri? Zerk ekarri zaituzte txoko honetara, aspaldiko partez?

—Amona, orain badakit zer esan nahi duen Itxaspe hitzak.

—A, bai?

—Bai, beti pentsatu izan dut gaizki asmatutako izena zela, “nola egongo da ba baserria itsasoaren azpian?”, orain badakit itsas haitz-pe dela Itxaspe, itsas haitzaren azpikoa.

—Bejondeizula, Ane! Ondo ari zara! Hitzekin

jolastea gustatzen zaizu, beraz. Zu ere idazlea izango zara, Anduko mutila bezala.

—Amona, jakin nahi dut nondik datorren Anarri hitza, zergatik duen izen hori Itxaspe peko arroka —bankutik altxatu eta amildegitik babesten duen hesi-raino hurbildu zen Ane, Anarri hobeto ikusteko.

Marinel ingelesa

—Amona, gure etxeko emakumeok antzeko izena dugu denok: zuk, amak eta nik ere bai; horrek zerikusirik ba al du Anarrirekin?

Isilunea gertatu zen. Amona Mariana bere pentsamen-duak antolatzen ari zen, iragan urruneko gertaerak gogora ekarri nahian.

—Horiek aspaldiko kontuak dira.

Ane eta Antton isilik ziren, amonak jarraitu zain.

—Honezkero ehun urte izango dira. Agidanez, marinel ingeles bati gertatutakoarekin lotuta dago izena. Aspaldi batean, Mollarritik bueltan etxera zihoan itsasontzi ingeles bat. Laino handia zen egun hartan. Itsu-itsuan, itsasoak beheko arroka horietara ekarri zuen ontzia. Arroka artean zirela, marinelak oihu bat entzun zuen, harkaitz baten gainetik lamia bat deika ari zitzaiola iruditu zitzaion: *Eman zia, egin atzera*.

—Eta salbatu al ziren? —Anek, larrituta.

—Justu-justu libratu ziren arrokan lehertzetik. Marinel ingelesa lamia antzeko hari begira-begira geratu zitzaion. Irudiarekin txundituta, ia kareletik behera erori zen itsasora. Bere andregaiaren antza izugarria zuen, Anne izeneko neska irlandarrarena.

Amonak kontakizuna bukatu zuenerako, Ane koa-derno gorrian apunteak hartzen hasia zen lapitzarekin.

—Gero, marinel ingeles hura beste bidai batean gure baserrian izan zen, Anarritik iritsi zitzaizkion oihu haiek norenak ziren jakitera etorrita, Itxaspeko neskati-laren batenak-edo ote ziren. Orduan gure amona neska gaztea zen. Niri hark kontatu zidan, ni txikia nintzela. Oso mutil guapo eta dotorea omen zen ingeles gazte hura. Aste batzuk pasatu zituen baserrian. Goiz osoa ematen zuen Anarriko arroka inguruan igerian.

Anek ez zekien zer egin entzundakoarekin. Koadernoan idazteari utzi zion.

—Eta izan al duzue haren berririk geroztik?

—Gero, zerbait idatzi ere egin zuen. Behin, handik urte batzuetara, haren semea etorri zen, bere aitak idatzitako paperak ekarri zizkigun.

—Gordeta al daukazu paperak?

—Hor ganbaran izango dira nonbaiten, bilatuko

ditut. Gogoan dut, gainera, nola deitzen zion amonari: *The lady of Anarri - Anarriko Dama*.

—Hara, zer polita! Amona, zuk paperak bilatu, guk bitartean bueltatxo bat egingo dugu Anarri aldean; gero etorriko naiz berriz.

—Antton, Anarrira jaitsiko gara! Etorri nirekin!

Ane hunkituta zegoen, iraganeko istorioaren oihartzuak zurrunbiloa sortu zion bere barruan. Amona ondo konturatuta zegoen horretaz.

—Ane, gaur itsasoa bare dago, baina itsasoa beti da itsaso, hor behean kontuz ibili!

—Lasai egon, amona, kontuz ibiliko gara.

Amonari musu emanda, abiatu ziren gaztetxoak aldapa behera. Anarri haien oinen azpian ikusi zutenean, amonak azaldutako bidezidorra hartu zuten, sigi-saga itsasoraino jaisten zena. Minutu gutxiren buruan, Anarri kostaldetik bereizten duen itsasarte estuaren aurrean ziren.

Marinel ingelesaren harria

—Eta, orain zer? —Aneren buruan zer ote zebilen jakin nahi izan zuen Anttonek.

—Txaparroak ekarriko zenituen, ezta? Atzo esan nizun.

—Ekarri bai, baina ura hotza dago oraindik.

—Baina Anarrira iristeko bi minutu besterik ez dugu behar igerian.

Anek ez zuen aparteko lanik egin behar izan Antton konbentzitzeko. Mutilari beste aldera begiratzeko eskatuta, laster egin zituen bikiniak jantzteko lanak. Anttonek nekez eutsi zion buelta eman eta begiratzeko tentazioari. Berak di-da jantzi zuen bainu-jantzia, neskari ezer eskatu gabe.

—Itsasoa bare dago. Marinel ingelesak ez bezala, guk ez dugu arriskurik izango —lasaitu nahi izan zuen Anek bere burua.

Arropak arrokaaren txoko batean txukun utzita, buruz behera murgildu ziren itsasoan. Burua aterata, *Ez dago horren hotza ere!* adierazi zion Anttonek, itsasoko ur oraindik hotza ukatuz. *Buelta emango diogu Anarriri*.

Uraren hotzari aurre eginez, bi gazteek igerian harkaitza inguratu zuten. Ez zegoen erraza arroka erraldoi hartan lehorreratzen, ez zuten heldulekurik

ikusten, baina kala txiki bat topatu zuten. Han lehorreratu ziren. Berehala, eguerdiko eguzkiaren berotan jarri arren, Ane dardarka zegoen, hortzak kraskaka. Antton ausartu egin zen: Ane besarkatu zuen, eta horrelaxe egon ziren, mutilak neskaren dardara baretu zela sumatu zuen arte.

—Eta orain zer, lamiaren bila hasi behar al dugu? —Anttonek, txantxa-doinu nabarmenez—. Izatekotan, zu zara lamia, zu zara-eta Anne.

—Eta zu zein zara, marinel ingelesa?

Elkarri irribarre zabala erakutsita, Anarriko arroka handi hartako txokoak arakatzeari ekin zioten. Handik gutxira, aparteko ezer ikusten ez zutela-eta, eseri egin ziren. Anek Irlanda aldera bideratu zuen begirada, eta begiak arroatxo batzuen arteko tartera joan zitzaizkion. Bihozkada izan zuen.

—Hara, Antton, hor zulo bat dago; begiratu egingo dugu barruan, ea zerbait dagoen!

Altxatuta, arroka tarte hura nolabait ere estaltzen zuen harria kendu zuen, eta zalantza-une baten ondoren, eskua sartu eta luzatu egin zuen. Harri koskor handi samar bat atera zuen. Barku itxura zeukan marrazki bat ikusi zion. Eguzkiaren argitan, berehala konturatu zen harriaren atzealdean zerbait zegoela idatzita, hitz batzuk. Denbora asko igarota zen norbaitek harriaren hitz haiek zizelkatu zituenetik. Kostata baina lortu zuten harriak zioena deszifratzea:

Thank you, Anne,

Eskarrikasko

From a rock near Mollarri

1911-07-26

Harriko hitzek harrituta, Anek harria hartu eta, nahi gabe bezala, gora begiratu zuen, Itxaspe aldera. Iruditu zitzaion amona erdi ezkutuan begira eduki zuela.

Di-da batean egin zuten Anarritik lehorrera. Han, arropak jantzi eta Anek harri-puska bizkar-zorroan sartu zuen, koaderno gorriaren ondoan. Gero, maldari ekin zioten bi gazteek, aldapan gora eskutik helduta. Amonak zeuzkan marinel ingelesaren paperak gogoan zituela, Anek bizkortu egin zuen pausoa. Amarentzako sendagarri izan litekeen harri magikoa zeraman bizkarran, ondo bilduta.

Lotarako ipuina

Mikel Iruretagoiena

—Beno, seme! Egun ederra pasa dugu, gaur. Primeran ibili gara eta orain lotarako ordua da. Emadazu musu handi bat eta sartu ohean, bihar ere ikastolara joan beharko dugu eta.

—Aurrena ipuin bat kontatu behar didazu. Ahaztu egin al zaizu, aita?

—Entzun, seme: gaur egun gogorra izan dut. Lanetik berandu etorri naiz, erosketak egitera joan behar izan dut, ondoren guraso-bilera interesgarri bat izan dut zure andereñoarekin eta, azkenik, etxeko komunitateko urteko batzarra. Neka-neka eginda nago.

—Aita, badakizu ipuinik gabe lorik ez dudala hartzen. Ipuina kontatu beharko didazu beti bezala, edo ezingo dut inolaz ere lorik hartu.

—Ea, ba, bat kontatuko dizut azkar-azkar. Behin baziren hiru txerritxo, zein baino zein bihurriagoak, beren amatxorekin bizi zirenak. Egun batean txerri-txoetako batek esan zion amari...

—Aitaaa... ipuin hori badakit! Askotan kontatu didazu eta graziaz ez dauka. Aspergarria da oso.

—Zein nahi duzu ba kontatzea?

—Bihurri ardiarena, aita. Horixe nahi dut.

—Hori ere askotan kontatu dizut, ba! Atzo ere horixe bera izan zen eta herenegun ere bai. Uste dut azken aste osoan hori bakarrik kontatu dizudala.

—Bai, aita; baina oraindik ez dut ondo ikasi. Hasi aita, zain nago eta.

—Egun batean artzain batek mendira joan behar zuen artaldea zaintzera eta galdetu zion semeari: Seme, etorri nahi al duzu nirekin mendira ardiak zaintzera? Bai, aita, esan zion semeak pozik, beti irrikitzen egoten baitzen aitarekin mendira joateko. Goazen, ba! Eta artzainak bere semea lau gurpildun motorrera igo eta magalean eserarazi zuen. Motorra martxan jarri eta han abiatu ziren biak mendian gora artaldearen bila.

—Aita, lau gurpildun motorra arrankatzearena ez duzu ondo egin. Horrela ez da ipuina.

—(...) Artzainak lau gurpileko motorra martxan jarri zuen BRUM BRUM BRUM eta mendian gora abiatu ziren TAR TAR TAR ardien zelaira. Zer duzu orain, seme? Pixa egin al duzu ohera sartu aurretik?

—Ez aita, ahaztu egin zait. Gainera kaka ere egin behar dut, aita.

—Kaka? Ea, goazen komunera, han jarraituko dugu eta. Esaten ari nintzen bezala, artzaina eta semea zelaira iritsi ziren. Artzainak hamar ardi eder zeuzkan eta han zeuden denak belarra jan eta jan. Primeran pasa zuten eguna: belarretan eserita elkarri kontu-kontari, amak prestatutako solomo-ogitarteko goxoa janez, ardiei begirik kendu gabe. Gaua iristear zela...

—Aita, bukatu dut. Garbituko didazu ipurdia?

—Zuk ere badakizu hori egiten! Ni ez naiz beti egongo zuri ipurdia garbitzeko.

—Ipurdia garbitzen dudanean ezin dut ipuina ondo entzun, aita. Zer pasatu zen gaua iristear zela?

—Gaua iristear zela, artzainak esan zion semeari: Seme, gaua etorri aurretik ardi denak bildu eta kortara jaitsi behar ditugu. Mendian utziko bagenituzke, otso maltzurra etorri eta denak jango lituzke. Beraz, aita-semeak ilundu aurretik ardi denak biltzen hasi ziren eta, ustez denak bildu zituztenean, ardiei maldan behera abiatzeko agindu zieten, beraiek atzetik lau gurpildun motorrarekin TAR TAR TAR jarraitzen zietelarik.

—Aita, motorrarena oso ondo egin duzu.

—Eskerrik asko, seme. Sakatu bonbari eta goazen berriro ohera. Horrelaxe, kortara iritsi zirenean, aita esan zion semeari: seme, orain ardi denak ekarri ditugun ala ez jakiteko kontatu egingo ditugu. Zure andereñoak esan dit hamar arte kontatzen ederki dakizuela. Hasi ardiak kontatzen.

—Bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bederatzi...

—Nola? Bederatzi bakarrik? Esan zion artzainak harrituta semeari. Ea, hasi berriz kontatzen, ardiren bat ahaztuta utziko zenuen.

—Uan, txu, fri, for, faif, siks, seben, eitx, nain.... Ingelesez ere ikasi dugu, aita.

—Mekatxiporreta! esan zuen artzainak. Egia da: bederatzi ardi bakarrik dauzkagu kortan. Bat falta zaigu eta uste dut badakidala nor den...

—Bihurri!

—Horixe bera. Nor faltako zen, ba? Bihurri ardia!

Orduan, aita-semeak kortatik atera eta oihuka hasi ziren: *Bihurriiii! Bihurriiii!* Baina Bihurrik ez zuen erantzuten. *Bihurriiii! Bihurriiii!* Baina erantzunik ez. Ardi bihurri hura mendian ezkutaturik zegoen, barrez lehertzen, artzaina eta bere semearen oihuei muzin eginez. Ordubete lehenago, beste ardi guztiak beherantz abiatu zirenean, Bihurri ardia zuhaitz baten atzean ezkutatu zen. Izan ere, hain zen bihurria Bihurri ardia.

—Aita, eta zergatik geratu zen Bihurri mendian? Zergatik ez zuen kortara etorri nahi artzainarekin?

—Ba, bihurri samarra zelako, hain justu. Ardiez gain, pertsona batzuk ere izaten dira beti besteek esaten dutenaren kontrakoa egin behar izaten dutenak. Zuen gelan ez al daukazue holako inor? Non geunden?

—Bihurri ardia barrez lehertzen ari zen.

—A, bai. Baina Bihurriren barreek ez zuen asko iraun. Otsoa esnatu berri zen eta, bere gordelekutik atera orduko, otsoek denek egin ohi duten bezala, ulu egin zuen AUUUUU, ilargiari begira. Otsoaren ulua inguru guztian entzun zen eta orduan konturatu zen Bihurri ardia zein arriskutan zegoen. Ordura arte pozik eta barrez zegoena, bat-batean bakarrik eta beldurtuta sentitu zen gau ilunean. Ardi gizagaixoa beldurraren beldurrez negarrez hasi zen. Nola egiten zuen negar?

—BEEEE BEEEE.

—Hori da. BEEEE BEEEE negarrez hasi zen gauaren erdian eta bere negarra artzaina eta bere semearen belarrietara iritsi zen. Baina baita otsoaren belarrietara ere. Artzainak esan zion semeari: Mugitu, goazen lehenbailehen Bihurriren bila. Bere negarrak otsoak ere entzungo zituen eta hura baina arinago iritsi behar dugu ardi lelo horrenganaino. Artzainak lau gorpildun motorra arrankatu BRUM BRUM BRUM eta berriro aldapan gora abiatu ziren TAR TAR TAR ziztu bizian. Otsoak ere, artzainak igarri bezala, bere usaimen zorrotzari esker, ederki asmatu zuen ardi gaixoa non zegoen eta korrika bizian abiatu zen sudurrak agintzen zion lekura, Bihurri ezkutatuta zegoen lekura, hain zuzen.

—Azkar, aita, otsoa baino lehenago iritsi behar dugu eta!

—Motorrean berehala iritsi ziren goizeko belardira eta iritsi bezain pronto artzainak aldean zeraman hurritz-makila eskuetan hartu zuen. Pauso azkarrez ardi gaixoaren eta otsoaren artean kokatu zen. Otsoa begira zeukan artzainak, hura ere korrika iritsi berria. Goseak amorratzen zegoen, lerdea zeriola. *Hi, harroxko, alde*

hemendik berehala, nire makila astintzea nahi ez baduk, esan zion artzainak otsoari. Otsoa, ordea, ez zen kikildu eta artzainari GRRRRRRR bere hortza zorrotzak erakutsi zizkion. Artzainak di-da batean makila altxa eta DANGA otsoari buruaren erdi-erdian itzelezko kolpea eman zion otsoa erdi zorabiatuta utziz...

—Aita, nik ere eman nahi diot! Mesedez...

—(...) eta, otsoa erdi zorabiatuta zegoenean, artzainaren semeak aitari makila eskuetatik hartu eta ZART ipurdian ikaragarritzko makilakada eman zion otsoari. AUUUUU AUUUUU AUUUUU hasi zen otsoa ipurdia minduta eta, beste zartako bat jasotzeko beldurrez, korrika alde egin zuen ilunpetan galdu arte.

—Ona, aita! Ez da gehiago etorriko otso hori!

—Otsoa ondo eskarmentatuta joan zen, baina gogoratzan al zara artzaina eta bere semea zertara igo ziren mendira gauean?

—Bihurriren bila.

—Hori da. Han zeukaten, ba, ardi bihurria oraindik dardarka, negar eta negar. *Barkatu nagusi, barkatu nagusi, esanaz. Barkatu?* Esan zion artzainak: *Zoro halakoa, denok kezkatuta geunden hi falta hintzelako eta orain barkatzeko? Barkatu nagusi,* berriro ere ardiak. *Benoa, barkatuko diat, baina baldintza batekin: gehiago holakorik ez egitea. Ez dut berriro egingo nagusi, ez dut berriro egingo...*

—Ardiek hitz egiten al dute, aita?

—Ez, baina ipuinetan bai eta nola Bihurri ipuin batekoa den, primeran egiten du euskaraz. Non gindoazen? A, bai... Bihurri damutu zela ikusita, artzainak semea eta ardia magalean hartu eta motorraren gainera igo ziren denak. Motorra arrankatu eta poliki-poliki beherantz abiatu ziren.

—Motorra arrankatzea ahaztu zaizu, aita.

—BRUM BRUM...

—Eta bidean ere soinua ateratzen du.

—TAR TAR ... TAR ...

—Aita, segi ba!

—Eta... eta... kortara iritsi ziren. Ordurako gaua zen... zerua ilun-ilun zegoen eta... Bihurri... artzaina...

—Aita?

—...

—Aita?

—...

—Amaaaa, etorriiii! Aitak berriz ere lo hartu du!

Ofizialki uda da

Libe Larrarte

Ehunetik gora e-mail/sms idazten dizkiezu interneten logelak eskaintzen dituzten txoropito mordoari. Pisu bat aurkitu behar duzu lehenbailehen. Paragrafo berdina duzu denentzat. Hiru esaldi txoro, zure izena, adina eta nazionalitatea aipatuz. Lana izateari buruz gezurra esaten duzu. Zure benetako nazionalitateari buruz ere bai. Ez duzu inor deseroso sentiarazi nahi hasieratik. Saihestu, ahal dela. Total, ez zaio inori inporta.

Bi pertsonak bakarrik idazten dizute bueltan. Ez zara akordatzeko nori idatzi dion ere. Norbaitek galdetzen dizu: ‘Swanstoneko pisuari buruz ari al zara?’ Ez dakizu Swanston non dagoen. Ez duzu bizitzan izen hori entzun. ‘Bai, libre al dago oraindik?’ erantzuten duzu.

Pisia hartzen duzu. Ikusten duzun lehena. Logela alokatzen dizunak Alasdair izena du eta bidaiatzera doa Asia aldera. Alasdairrek galdera batzuk egiten dizkizu pisuz aldatzearen arrazoiaren inguruan. Mutilarekin moztu duzula azaltzen diozu. Erantzuna luzatzen hasten zara, irakasle bati bezala; motzegia geratu zaizula uste duzu, pixka bat biolentoa. Baina trabatu egiten zara: ‘Bueno, moztu-moztu esaten dena, moztu, ez dugu benetan moztu... Konplikatu da... Badakizu gauza hauek nola diren, denbora asko luzatzen dira... Kaka kakaren gainetik, ba, azkenean... hori, kaka. Baina bueno, denboraldi baterako bakarrik da, denboraldi labur baterako, proba bat bezala da, esperimentu bat, ea nola ateratzen den. Oraindik lagunak gara, e? Baina bueno, ez kristoren lagunak, klaro... baina askotan geratzen gara. Pixka bat arraroa da momentuz dena, pisuz aldatzea eta hori; nahiko gogorra, bai, surrealista igual. Zer? Zenbat? Ba, asko, bai: zazpi urte-edo, gutxi gorabehera. Baina bueno, hori, zerbait tenporala bakarrik dela, nahiz eta dena gaizki egon orain, hori bakarrik da azkenean, zerbait tenporala’.

‘Kat arrazoi beragatik etorri zen hona’ moztzen dizu Alasdairrek. Norbaitek moztu behar zizun. Kat beste pisukidea izango dela uste duzu. ‘Orain dela hiru urte’ jarraitzen du Alasdairrek. ‘Barkatu?’ ‘Kat, orain dela hiru urte etorri zen hona bizitzera’. ‘A’.

Kanpoan euria ari du. Eguraldi triste eta kaskarra,

beti bezala. Ez duzu lorik egin gauean. Idazten aritu zaizu Bera gau guztia. Whitehouse taldearen letrak, whatsapppez. Eskuak moztu eta beldurra benetan zer den sentitzearen inguruko zerbait. Ez zara gehiegi gogoratzen.

Autobuserako eguneko txartela erosten duzu. Zuk zerorrek egiten duzu pisu aldaketa guztia, bakarrik. Beharrezkoak dira zenbait bidaia. Oraindik gauza batzuk falta zaizkizu hartzeko. Gitarra, anplia eta kulero batzuk. Eta etxeko zapatilak. Eta belarriak garbitzeko kotoi zotzak.

Autobus geltokian, norbaitek kristaletan postit notatxoak itsatsi dituela konturatzen zara. Hortxe, ordutegiaren ondoan. ‘GAUREGUN ZORAGARRIA IZANGODA’, dena maiuskulaz, ‘EGIN DEZAKEZU’, eta irribarre baten marrazkitxo bat, ondoan. Hirugarren aldia da geltoki horretan zaudena eta ez zara lehenago konturatu. Seinale bat dela uste duzu. Norbait zuri laguntzen saiatzen ari da. Aingeru bat, seguruena. Postit-ei argazkia atera eta Instagramera igotzen duzu. Whatsapppeko kontaktu batzuei ere bidaltzen diezu. ‘Ez dut ulertzen nola inor horrelako zerbait egitera molestatu daitekeenik’, idazten dizu lagun batek. Zuk ere gauza bera pentsatuko zenuen garai batean, gazteagoa zinenean, zinikoagoa. Orain, ordea, norbaitek hori egiteko kortesia eta denbora hartu izana apreziatzen duzu. Norbaitek, etxetik bere notatxoak idatzita etorri eta lotsatu gabe —jende gehiago egon zitekeen autobus geltokian— kristalean itsatsi ditu beste norbaitek irakurtzeko. Norbaiti laguntzeko, egun triste eta kaskar honetan irribarre bat eragiteko. Hippy, yogi, pertsona espiritual arraro bat seguruena, berdin dio. Keinua bera estimatu behar da.

Zure pisu berrian zaude. Komunera zoaz, pixa egiten duzu. Komuneko papera falta da. Kuleroak pixka bat bustita geratu zaizkizu. Augurio txarra dela uste duzu.

Gela berriagorrotatzen duzu. Txikiegia da. Alasdairrek ez ditu bere poster eta banderak kendu, gainera. Esan zizun zu etorri baino lehenago egingo zula. Mezu bat idazten diozu, badaezpada ere, ‘Paretako gauzak kenduko ditut’. Segituan erantzuten dizu, ‘Bai, lasai! Azkenean

ez dut egin, iruditu zaidalako triste samar geratuko zela, bestela'. Ja, alperra. Hokusai-en 'Olatua'ren afixa bakarrik lagatzen duzu paretan. Handia da. Koadro berdina zeneukan Berarekin konpartitzen zenuen pisuan. Melankolia eta kontsolamenduaren arteko zerbait ematen dizu.

Beste guztia kendu daiteke. Gela serioegia eta maskulinoegia da. Erromako koliseoa eta Erromako beste toki batzuetako koadro itsusi pila daude. Alasdair Erromarekin obsesionatu samar dagoela ematen du. Koadroak bigarren eskuko denda zahar-kirasdun batetik hartuta daudela dirudi. Dena kentzen duzu.

Goizero, paseo/korrika saio epikoak egiten dituzu. Hamar minutuko korrikaldiak motz geratu zaizkizu. Egoera berriak neurri drastikoagoak behar ditu. Gutxienez zure egunaren erdia hartuko duen zerbait behar duzu. Horrela, beste erdi bat bakarrik geratuko zaizu. Moztu eguna. Hori da arauetako bat.

Ontziak berrerabiltzen dituzu, asko. Ontziak garbitzea benetan nazkagarria da. Edalontzi bera erabiltzen duzu goizean kaferako eta gauetan lo hartzeko infusiorako. Gauza bera esan daiteke tostaden plateragatik eta abar.

Liburutegira joaten zara egunero. Horrek ez du esan nahi bertan pasatzen duzun denbora guztia produktiboa denik, baina behintzat jendez inguratuta zaude. Eta soinuez. Eta hori da momentu honetan behar duzuna. Gelaren bestaldean, gizon batek ingelesa erakusten dio emakume atzerritar bati. Nahiko ozen ari dira. Atsegina da. Ondoan, ume batzuk oihuka ari dira. O, zoriona!

Gizon batek gutxi gorabehera 400 orri dituen liburu astun bat hartzen du eta zure aurreko mahaian esertzen da. Liburua ireki, buruari eskuekin heldu eta begiak ixten ditu. Zurrungaka ari da. Bideoan grabatu eta Instagramera igotzen duzu.

Gizon bat entzuten duzu, bi mahai harago, 'benetako lan bat' espresioa erabiltzen. Aholkulari edo gizarte zerbitzuetako langile batekin ari dela ematen du. Zuk ere, 'benetako lana' askotan erabiltzen duzula konturatzen zara. 'Benetako lan bat', 'lan normal bat', 'lan serio bat'. Zer ostia esan nahi du horrek, ordea? Horrelako lan bat nahiko zenukeela pentsatzen duzu.

Liburutegia itxi arte geratzen zara, egunero. Ez zaizu gustatzen liburutegia ixten dutenean, horrek etxera joan behar duzula esan nahi duelako. Pisu berrira, etxe sentitzen ez duzuna.

Janaria behar duzu, ordea. Ze suertea! Oraindik ez duzu etxera joan behar. Lidl-era zoaz. Hiriko Lidl

guztiak berdinak dira. Nola arraio lortzen dute hori? Mundu guztian berdinak izango ote diren pentsatzen duzu.

Lidl-eko argiek beti depresio puntu bat eragiten dizute. Argiak indargabeak bezala dira. Motelak, ahulak. Tristeak.

Ordaintzeko kolan zaude. Zure aurrekoaren erosketa begiratzen duzu. Izoztutako pizzak eta litxarreriak, gehienbat. Zure erosketari erreparatzen diozu. Zerealak, jogurta, kuskusa, oliba olio, detergentea eta komuneko papera. Eta esnea, behi esnea. Ez arroz, ez almendra, ez koko, ez horrelako esne pijorik. Behia. Tetrabrik txikiena. Esnea azkar txartzen da bakarrik bizi zarenean eta gero zerealak gosaritan nazkagarri geratzen dira. Eta piper bat, tomate bat, eta kalabazin bat. Gehiago paketerik ez. Banaka. 'Nahiko ondo ari naiz', pentsatzen duzu. Baina itxaron, ez gehiegi emozionatu. Poltsa ahaztu zaizu etxean, tuntuna. Dena poltsa handi batean sartzea lortzen duzu. Bost xentimo. Atera bezain pronto poltsa hausten zaizu. Erosketa besarkatzen zoaz etxera, *a la americana*. Edonork ikusi dezake beste poltsa bat ordaintzeko xuhurregia zarela. 'Begira neska gaixoari, argi dago gauza gehiegi dituela poltsa baterako!'. 'Itxu batek ere ikusi dezake hori, lotsagarria!' Kaletik seinalatzen zaituzte eta barre egiten dute, histerikoki.

Etxe atarira iristen zara. Zure bizilaguna ikusten duzu, urruti samar, atera hurbiltzen. Giltza bilatzen hasten zara. Bizilaguna nahiko gertu dago orain. Atea irekitzen ari zara. Bizilaguna urrutiegi dagoela uste duzu, itxaroteko. Edo agian ez. Zaila da esaten. Sartu eta atea ixten duzu. Erabakia hartuta dago. Eskaileretan gora, bizilagunaren silueta ikusten duzu atearen beste aldean, giltza bila. 'Ez naiz oso fin ibili hor', pentsatzen duzu.

Gmaila begiratzen duzu. Lagun batek Beyoncéren bideo musikal berria bidali dizu. 'Grown Woman'. Indarra eman beharko lizuke, horrexegatik bidali dizu, baina efektua ez da oso nabarmena. 'Jainkosa bat da', idatzi dizu, 'zu bezala. Egun ona izan, muxu asko, maite zaitut'. Berriro ere, keinua estimatu behar da.

Bainuontzia betetzen duzu. Inor ez dago etxean. Kandelak jarriko zenituzke, atmosfera espiritualago bat sortze aldera, baina ez duzu kandelarik. Argia itzaltzen duzu eta meditazio aplikazioa jartzen duzu mugikorrean. Komuneko taparen gainean uzten duzu, erdi bustita eta lurrunduta. Erraz distraitzen zara. Antsietate pentsamenduak. Ez diozu audioari kasurik egiten. 20

minutu pasa dira. 'Entzun zure arnasa. Hasieran baino lasaia goa eta sakonagoa da', dio audioak. Zure arnasa entzuten duzu. Hasierako erritmo eta sakontasun berdintsua duela esango zenuke.

Nahigabe, Alasdairren ordenagailuan, 'Emakumeek gizonengan bilatzen dutena' YouTubeko tutorial batekin topo egin duzu bere musika itzaltzera joan zarenean. Gertakariak triste uzten zaitu.

Buelta bat ematera irten zara. Mugikorra etxean utzi duzu. iPodak bakarrik hartu duzu. Modu aleatorioa aukeratu duzu. 'Modu aleatorioan nago'. 'Zure bizitza osoa dago modu aleatorioan', esan zizun behin Berak.

Zure islari begiratzen diozu eskapateetako leihoetan. Ohitura txarra da, badakizu, baina gero eta gutxiago egiten duzu. Zure begiek triste itxura dute, egia da. Kontzienteago zara zure begien itxuraz Berak hori esan zizunetik. Estetizista batek ere gauza bera iradoki zizun behin lehengusuaren bodarako begiak nola makilatu esan zizunean. 'Beti goraka amaitu beharko zenuke eyelinerrarekin, horrela, ikusten? Horrela zure begiak ez dute triste itxura izango'. Ordutik beti jarraitu izan duzu haren aholkua, baina ezin duzu egunero eyelinerra erabili. Estilo naturalaren aldekoa izan zara beti.

Kat pisukidearekin berriketan ari zara sukaldean. Katek dio mutil lagunaren etxean egingo duela lo gaur gauean eta zuretzako soilik izango duzula pisu osoa. 'Ze ondo!', esaten diozu, zerbait espeziala pentsatzen ariko bazina bezala. Bat-batean izugarritzko festa bat ospatuko bazenu bezala. Rave bat.

Anakardo batzuk, ogi pixka bat eta ondo lo egiteko infusio horietako bat, afaltzeko. Berogailuak ez du funtzionatzen zure gelan. Ur beroaren poltsa besarkatzen duzu estu eta lo-hipnosi aplikazio bat bilatzen duzu mugikorrean. Lo egiten saiatzen zara.

Goizeko ordu bietan esnatzen zara. Beheko pisutik dator burrunba. Festa bat dirudi. Agian bi festa batera, soinuagatik. Ikasle zona batean zaude, zer ostia espero zenuen? Ez dute birziklatu ere egiten hauek!

Zure auzo berriko liburutegiko jendea 30 eta 40 urte bitartekoa da. Bideo jokoa jolasten dira, pelikulak ikusten dituzte, eta Facebook Messengerra erabiltzen dute, binaka, ordenagailuetan. Beste batzuk pisu bila ibiltzen dira Gumtreen eta lan bila ere bai, beste asko. Hau da zure kuadrilla berria.

Komunera joateko giltza behar da liburutegi honetan. Giltza eskatzen diozu liburuzainari. Komunera zoaz, baina giltzak ez du atea irekitzen. Giltzan 'gizonezkoak'

jartzen du. Zure buruari galdetzen diozu Alasdairri hartutako txaketak mari-mutil itxura handiegia ematen ez ote dizun. Giltza bueltatzerakoan, liburuzainak errieta egiten dizu zure motxila eta gauzak mahaian uzteagatik. 'Hurrengoan ez dituzu bueltan aurkituko! Horrela desagertuko dira!' eta eskuekin mago batek bezalako keinua egiten du, puff!, magia. 'Barkatu', esaten diozu. Barkamena gehiegi eskatzen duzula pentsatzen duzu. Barkamena eskatu beharrik ez dagoen kasuetan ere eskatzen duzu. Ez da seinale ona.

Liburutegiko kafe makinako kafe txar bat hartzera zoaz. Libra bat besterik ez da. Ez zaizu iristen egunero kafetegi onetako kafe pijoa hartzeko. Gainera, kafea kafea da. Txanpon txiki guztiak erabili nahi dituzu. Pila bat dira. Banan-banan sartzen hasten zara baina makina aspertu egin da prozesu erdian. Oraindik txanpon pila geratzen zaizu. Makinak denak hartu dizkizu orain, baina ez dizu kaferik eman. Kafe makinari ostia batzuk ematen dizkiozu. Suabe hasieran. Txanpon batzuk berreskuratzen dituzu. Fuerteago ematen diozu orain. Txanpon gehiago. Soinu dezente ateratzen ari zara. Liburutegi batean zaude. Lehenago errieta egin dizun liburuzain bera dator zuregana. Arazoa non dagoen galdetzen dizu. Egoera azaltzen diozu, oraindik kafe makinari joka. Gelditzeko eskatzen dizu: 'Mesedez, lasaitu zaitez!' Zer nolako kafea nahi duzun galdetzen dizu. 'Kafesne bat'. Azukrerik hartzen duzun galdetzen dizu orain. Ezetz. Bale orduan, mahaira joateko, esertzeko faborez. Ez dakizu ondo zer gertatzen ari den, baina kasu egiten diozu. Bueltan da laster katilu handi batekin. Kafe amerikanoa, esne hotzarekin. 'Eskerrik asko'. Nahiko txarra dago.

Pisuan bueltan, Katen mutil lagunak berriz kafea eskaintzen dizu. Zure ahizpak Gabonetan oparitutako Kate Bush-en katilua erabiltzen ari da berea edateko. Eskaintzari uko egiten diozu, sotil, eta zure gela txikira erretiratzen zara.

Gaur Berarekin gelditzen zara. Zita perfektua dirudi. Eguraldi ederra dago, zerbait ezohikoa hemen. Zerbeza batzuk erosten dituzue supermerkatuan parkean edateko. Pixka bat mozkortuta zaudete. Bere gaztelania praktikatzen duzue. Barre asko egiten duzue. Hanburgesak afaltzera joaten zarete. Musu ere ematen duzue jatetxean. Eta eskua ere ematen duzue momentu batean. Zerbeza gehiago edaten duzue. Zinera zoazte komedia erromantiko berria ikustera Greta Gerwig, Ethan Hawke eta Julian Moore-kin.

Pelikula bukatzean, etxera joan beharko zenukeela diozu. Berak zurekin lo egin nahi du. Ez zaudela ziur diozu bere pisurantz jarraitzen diozun bitartean. Zuen pisu zaharra. Bide erdian gelditu egiten zara eta hortzetako zepilloa ahaztu zaizula esaten diozu. Bidean bat erosiko duzuela erantzuten dizu. Oinez jarraitzen duzue. Berririo gelditzen zara. iPoda ahaztu zaizula esaten diozu, bihar etxera bueltatzeko. Berea utziko dizula erantzuten dizu. Zuk zure musika entzun nahi duzula esaten diozu. Edozeini pazientzia agortuko zenioke zuk. Buelta ematen du zuregana zuzenduz eta builaka hasten zaizu. Jendez lepo dago kalea. Larunbat gaua da. Korrika zoaz beregana eta besarkatu egiten duzu. Isiltze aldera, gehienbat. Besarkatuta jarraitzen duzue kale erdian. Negarrez ari zara. Bere lagun Davidi deitzen dio. Oraindik besarkatuta jarraitzen duzue David etortzen denean. David agurtzen duzu, malkoak lehortuz. Parrandara doaz. Etxera bueltatzen zara.

Korrika egitera atera zara berriz. Kanaletik. Eguraldi zoragarria dago. Jendea kayakean eta txalupan dabil. Mutil gazte batek salto egin du uretara eta beste bat dabil neska bat bota nahian, bultzaka. Neska erortzeaz dago, oihuka ari da barrez, pozik. Hirugarren bat dator atzetik eta, halako batean, neska botatzea lortzen dute. Hark, ordea, mutiletako bati besotik heltzen dio erori aurretik eta biak uretan bukatzen dute. O, gaztea izatea zer den!

Smashing Pumpkins-en ‘Today’ tokatu da iPodean; modu aleatorioan, noski. Gero David Bowieren ‘Modern Love’. Menderaezin sentitzen zara. Erritmoa azkartzen duzu. Ez duzu inor behar! Gazela bat zara! Bizitza ederra da! Inorkezin zaitu geratu! Agian korrika egiteko zapatila berriak ez litzaizkizuke gaizki etorriko. Arrosa fuerte batzuk, oso modan daude orain.

Korrika saioaren ostean, belar moztu berrian esertzen zara, zelaian. Ze usain ona! Estiratu egiten zara. Galtza motzak dituzu jantzita eta zure hankak nahiko beltzaran daude. Ze guapa zauden! Etzan egiten zara. Musika gehiago entzuten duzu, begiak itxita. Zure burua pentsamendu batetik bestera doa saltoka. Utzi egiten diozu, segi saltoka, ez epaitu, behatu... oso Zen zaude. Lainotzen hasten du, etxera bueltatzen zara.

Zure gela txikia garbitzen duzu. Ohe azpian begiratzen duzu. Pizza kartoi huts bat, lehengo urteko egutegi bat, galtzerdi batzuk eta erabilitako kondoi bat. Erratzaz dena garbitzen duzu. ‘Ez nuke zertan hau egiten ibili

behar’, diozu. ‘Ez nuke zertan’.

Duolingo-n frantsesari berriz ekitea serioски planteatzen duzu.

Jende piloa ezagutzen duzu zure boluntario lan berrian. Sashak 24 urte ditu eta interneten bere programa du. Zure ile txuria gustuko duela esaten dizu. Seguru zaude gaizki ulertu duzula eta ‘zure ilea’ bakarrik esan duela. Galdetu egiten duzu, badaezpada ere: ‘Barkatu?’. ‘Zure ile txuria gustatzen zaidala’. Ba, ondo entzun duzu lehenengo aldian. ‘Badakizu ile txuria daukazula, ez?’, dio, lasai. ‘Bai, badakit’. ‘Asko gustatzen zait, ondo geratzen zaizu’. Lagun guztiei kontatzen diezu. Denak uste dute adinarekin obsesionatuta zaudela.

Zure boluntario taldean asko hitz egiten dute festibaleko jardunaldietara joan eta ‘kontaktuak egiteaz’. ‘Networking’ deitzen diote. ‘Gure lana kanpora zabaldu behar dugu!’, esaten dute. Edo ‘hau oso leku ona da kontaktu berriak egiteko’, ‘modu bakarra da mundu honetan!’. ‘Mundu honetan’ esaten dutenean, ikus-entzunezkoen munduan esan nahi dute, ez mundu osoan. Ados zaudela egiten duzu buruarekin: ‘Bai, bai, guztiz ados’. Ez duzu momentua zapuztu nahi. Lanik ez duzulako —ordaindua, alegia— eta pisu berrian egon nahi ez duzulako bakarrik zaude hor.

Berarekin egiten duzu amets. Beste behin. Berarekin amets egitea noizbait bukatuko den galdetzen diozu zure buruari. Zure lehenengo mutilarekin amets egiteaz oraintxe amaitu duzu, literalki, eta dagoeneko hasi zara berriarekin. Ero samarra iruditzen zaizu guztia, hori besterik ez.

Neska batekin dagoela amesten duzu. Elkar atsegin dutela ikusi dezakezu. Ile horia du neskak eta aurpegia pixka bat lausotuta dauka. Neskak Berari galdetzen dio ‘Hau al da zure neska-lagun ohia?’. ‘NESKA-LAGUNA!’ oihu egiten duzu zuk. Berririo pentsatzen duzu, ‘A, ez, arrazoi duzu’. Biek penaz bezala begiratzen dizute. Oso gertu daude elkarrengandik. Ukitzen eta guzti ari dira, lotsagabeak. Biak banatzeko imintzioa egiten duzu, labrador txakur jeloskor bat bezala. Barre egiten dizute aurpegira. Honek gogora ekarri dizu txikitako irudi bat, zure amarekin. Ez dakizu benetako oroitzapen bat den edo asmatu egin duzun. Oroitzapenak asmatu eta erraz manipulatu daitezkeela entzun zenuen behin, irratsaio batean. Blade Runner-en errepliklanteetan bezala.

‘Emergentziazko erretira’, pentsatzen duzu. Aditua zara esparru horretan. Garai desesperatuek neurri des-

peratuak eskatzen dituzte, esaerak dioen bezala. Egoerak erretira fisikoa eskatzen du, herrialdetik. Arrastorik gabekoa. Erretira garbi eta txukun bat. ‘Zein izango litzateke bizitzeko toki on bat?’. Kanada, pentsatzen duzu, agian. Edo Australia.

Zinera zoaz. Kat gonbidatzea pentsatzen duzu hasieran, bakarrik ez joatearren, baina gero gogoratzen duzu azken aldiz elkarrekin zinera joan zinetenean ez zela isildu ere egin pelikula osoan. Ez zenekien horrelako pertsonak benetan existitzen zirenik. Komentario guztiz absurdoak, gainera. Ikaragarria.

Bakarrik zoaz. Faroe irletan baleak hiltzeari buruzko dokumental bat ikusten duzu. Etxera bidean okurritzen zaizu, Kanada edo Australia beharrean, igual Faroe irletara joan zintezkeela. Dokumentaleko balea-hiltzaile guapo horietako batekin ezkondu eta pare bat ume balea-jale izan, balea sukaldatu otorduro, balea gosaltzeko, balea bazkaltzeko eta balea afaltzeko, balea-errezeta desberdinak... erizain bihurtu, beharbada, edo haurren irakasle, eta poz-pozik bizi betirako.

Pentsamendu hauetan zaude murgilduta Arab Strap-en ‘The First Big Weekend’ kantua tokatzen zaizunean zure iPodean, aleatorioan. ‘Went out for the weekend, it lasted for ever, high with our friends it's officially summer...’. Etxe atarira iritsi zara baina kantua ez da oraindik amaitu. Egia esan, ez duzu zertan etxera joan orain, segituan. Ilunabar zoragarria dago. Enarak Afrikatik bueltatu dira. Beren zain egon zara, urtero bezala. Beren kantua betirako zure memorian grabatuta, eskola amaierarekin bat. Aireka epela da eta palomita usaina du. Garagardo fabrikatik datorren usaina da. Hiriko zure usain gustukoena da. Are gehiago, munduko zure usain maiteenetako bat dela esatera ausartuko zinateke. Fuerte hartzen duzu arnasa. Ondo sentiarazten zaitu. Ondo sentitzen zara. Zure gela txikian pentsatzen duzu. Gustatzen hasi zaizu. Nahiko ondo dekoratu duzu. Etzi, lan elkarrizketa bat daukazu. Ezezagun batek irribarre egiten dizu. Irribarre egiten diozu bueltan. Dena ondo irtengo da. Ondo egongo zara. Ofizialki uda da.

Klarinete jotzailea

Ane Etxabe Usandizaga

Maddi haserretu egin zen, auzokide batek goizean goiz klarinetea joaz esnatu zuelako. Aurreko gauean lorik egin ezinda, goizean berandu jaikitzeke esperantza zuen. Baina auzokidea ez zen klarinete jotzaile fina eta belarri barruraino sartzen zen zarata batek esnatu zuen. Gosalduta eta mahai gainera hurbildu zen, han baitzeuzkan koadernoak eta arkatza. Beti egin ohi zuen bezala, idazteari ekin zion. Arkatzak, beti lez, haserrea xurgatu zion, Maddik klarinetearen nota asmaezinez idazten zuen bitartean. Arkatzak lasaitzen baitzuen Maddi, ekaitzaren ostean agertzen diren eguzki izpien moduan. Arkatzak xurgatu zuen Maddiren haserrea eta koadernoak bereganatu gogaikarritasuna.

Irtzen zen kalera, eta joan zen erosketak eta enkarguak egitera. Arrandegian arraina erosi zuen eta liburudendan poesia liburu txiki bat. Hainbat idazleren irakurketan murgildurik zebilen, poeta handien teknikak

bereganatuz, poema propioak sortzeko. Denbora luzez bere lanen irakurle bakarra izan ondoren, gaian aditu samarra zen lagun bati bidaltzen ausartu zen bere poema-sorta. Lagunaren erantzunaren zain jarraitzen zuen eta urduri samar jartzen hasia zen, testuak bidaltzeko erabakia asko kostatu baitzitzaion.

Bazkalondoan, gauean egin ezin izan zuen loa erreku-peratzeko asmotan jarri zen etzanda, lo-kuluxka bat egitekotan. Begiak itxi bezain pronto, ordea, lehen nota bat entzun zuela iruditu zitzaion, jarraian begiak ireki zituen, melodia arritmiko baten hasiera entzun baitzuen argi eta garbi. Berriz kalera irtetea erabaki zuen, auzokideari arkatza belarriko zulotik sartzeko gogoz ikusten baitzuen bere burua.

Hartu zituen koadernoak eta arkatza, baita poesia liburutxo berria ere eta paisaia ederreko banku bakarti batean igaro zuen arratsaldea, poesia irakurri eta bere

poema propioak sortzeko ahaleginetan.

Ettxera sartzean, kolore berdeko gutun-azal bat ikusi zuen postontzian. Tripa estutu eta ireki zuen berehala, lagunaren iritzia jakiteko irrikaz. Berak bidalitako lan guztien gainean, lagunak idatzitako mezu motxa topatu zuen:

Maddi maitea:

Ez nuen uste idaztea gustatzen zitzaizunik; are gutxiago poesia! Ez dago batere gaizki, baina espero dut ez duzula gehiegizko ilusiorik izango. Denbora pasatzeko modu aparta da, baina ez doa hortik harago. Ni zu banintz ez nuke esperantza askorik izango.

Muxu handi bat.

Negarrez hasteko irrikan zegoen, baina ez zen ezkaratzean hasiko. Azaldu ezin daitekeen mina zuen bularrean; mila sentimendu eta, aldi berean, bat bera ere ez. Igogailuaren atea ixtear zela, auzokide bat sartu zen: klarinete jotzailea. Irribarre batekin agurtu zuen, baina Maddi ez zegoen umoretsu.

—Aizu, gauza bat esan nahi dizut. Utziko duzu behingoz klarinetea bakean? Egun guztia traste zaharra jotzen pasatzen duzu, buruko mina jartzen diozu auzo guztiari! —eskuarekin imintzioak egiten hasi zen, baina eskuan zituen paper guztiak erori zitzaizkion. Jasotzen zituen bitartean erretolikarekin jarraitu zuen—. Ez zara konturatzen adin honetan ezin zarela ezer berririk ikasten hasi? 10 urteko umeek zu baino askoz hobeto jotzen dute, egun osoa klarinetea jotzen pasa arren ez

zara kanta oso bat ondo jotzera ailegatu!

Ettxera iritsi eta beste ezer baino lehen, eskuan zituen paper guztiak kaxoi batean sartu eta kolpe batez itxi zuen. Arkatza ere hartu eta erditik puskatu zuen. Mahai gaina garbi-garbi geratu zen. Mila sentimendu zituen; frustrazioa, nahigabea, tristezia, haserrea, baina haiek ezin zituen inon sartu. Barruan geratu zitzaizkion, trabaturik.

Hurrengo egunean atea jo zuten; baina, ireki zuenean, ez zen inor ageri. Lurrean, ordea, koaderno handi eta polit bat zegoen, berri-berria, eta, haren gainean, arkatz eta bolaluma sorta bat. Besoekin hartu zituen estu, besarkatuz bezala, eta segituan ikusi zuen egin beharrekoa. Mahai garbi eta hutsaren aurrean eseri eta idazteari ekin zion. Idazten hasi ahala, frustrazioa desagertu zitzaion; jarraitu zuen eta nahigabea eta tristezia ere xurgatu zizkion koadernoak, azkenik haserrea ere desagertu zen arte. Hala ere, idazten jarraitu zuen, idaztearen magiak jarraitzera bultzatuko balu bezala.

Egun batzuk geroago norbaitek klarinete jotzailearen atea jo zuen. Hark atea ireki zuenean, ipuin bat topatu zuen, eta baita labetik atera berria zen poesia sorta txiki bat ere. Horrela hasten zen:

Bazen behin klarinete jotzaile bat, poliki-poliki musika ederra jotzen ikasi zuena. Hasieran ez zuen nota askorik asmatzen, baina ez zuen etsi eta bere bidean jarraitu zuen. Klarinete jotzaile ausart baten istorioa da hau...

40 urte

Mikel Iruretagoiena

Doinua: Atso gezurti bati

1

Berrogei urte mugarri dala
entzuna degu askotan,
krisia ere esaten degu
zifra hau aipatzekotan,
neronek ere paseak ditut
ta hemen nago kolokan,
mamu ta kezkak uxatu asmoz
hastera noa bertsotan.

2

Urruti daude indar ta sasoiz
ibili ginan garaiak,
festarik festa saltoka lotuz
gure inguruko jaiak,
hondartzan parrez igarotako
momentu gozo, alaiak,
handik geratzen zaizkigu soilik
sozidadeko afaiak.

3

Bada kontua gure kuadrillan,
lotsatzen nau esatiak,
bakoitzak dauzka bere gurutze,
falloak ta atxakiak,
hango desgaste, hango bypass-a,
hango kolonoskopiak,
holako gauzik ez du izaten
sasoi danian gaztiak.

4

Itxura ere zaindu beharko
ea zein modernoena,
bizarra ere modan utzita
ta ahal duenak melena,
gaztian plantak egin nahiean
ematen degula pena,
geure burua ez onartzea
horixe da okerrena.

5

Hiru badira hartu dutenak
azken aldian motoa,
garai batean Vespino zana
orain ez degu nahikoa,
Harley dotore burrundatsu bat
beso azpian kaskoa,
hau bihurtu da itxura danez
sexuaren ordezkoa.

6

Kirolarekin eman digute
nahikotxok ezustekoa,
gaurdaino arte juerguista zana
orain atleta petoa,
berdin da surfa, igeriketa
edo running dalakoa,
martxa honetan ez da faltako
esgintze ta infartoa.

7

Kukuarriko mendia balitz
bizitzaren metafora,
iritsi gera gure txangoan
gurutzearen ondora,
aldapan behera hasiak gera
ta ezin galdu denbora,
nahiz iruditu hasi gerala
benetako maldan gora.

8

Azken bertsoa sorta honentzat
egin beharko akabo,
koadrillatikan ni botatzea
ez da izango milagro,
pozik, umorez ahal dan neurrian
bizi nahi nuke luzaro
geure buruaz parre egitea
baino hoberik ez dago.

Telezirkoa

Garazi Urretabizkaia

Doinua: Juana Bixenta Olabe

- | | | |
|--|--|--|
| 1
Hanka puskatu, eskaiolatu
ta etxean lasai behar geratu.
Hasia zait jada aspermena
ta da egun askoren lehena...
Ene, zer egin!
Ordu guztiak badira berdin,
gauza asko nahi ta egin ezin. | 5
Ta <i>Cámbiame</i> , zer degu hori?
Hiru txoriburu aurpegi lodi...
Autoestimarik gabe joan ta
utzi diote mokordo planta...
Ene, zenbat min!
Jende gaixo horren malkoekin
psikologo bat ekarri ta fin. | 9
Belen Esteban da erregina,
tabikerik gabeko Ama Birjina.
Bizi osoa dauka saldua
esklusibetan da fosildua.
Jode, ze pena!
Emakume koittadu onena,
bizitza gabe gaur bizi dena. |
| 2
Muleta hartu, dena apartatu
ta sofán ipurdia dut pausatu.
Mandoa hartu eta egin klik
ideia ona ez dela badakit,
hasi gaitezen
katerik kate, izenik izen,
dena aztertu dezadan ozen. | 6
Ta hiruretan, kate guztitan
munduko notizien irrikitan.
Dena degu kaos, dena drama,
eztago ederra panorama.
Baina zer da hau?
Mundu alu honek itoko nau
katea aldatu behar dut ri-rau! | 10
Eta ETBn, ez gaude herren,
Zigor Iturrietarekin sukalden
Gizon jatorra, baina soso, a,
txiste kontatzen desastrosoa.
Hartu dedila
eta jan dezala gatz papila
denok eskertuko diyou pila. |
| 3
Lehenengo La Dos, <i>Saber y ganar</i>
partaide artean bi agure zahar,
Jordi Hurtado fantastikoa,
ezagutu du Kretazikoa.
Ai, zenbat froga!
Pentsatzeko behar da denbora,
gaurkoan ez det nahiko ganora! | 7
Zubi zaharreko sekretu hori
Antena Tresen dabil gori-gori.
A, ze castellano potentea,
Castillakoa eta noblea,
Ulertu ezak!
Ezti laguntzen gaurkon zerbezak,
nik behar ditut gauza errezak. | 11
Hau nazkatua, azkar hartua,
zer zen telebista neukan ahaztua...
Muleta hartu eta banoa,
ohe aldera berriz txangoa,
dena ahazteko
liburu bat hartu eta kieto,
bihar gehiago eta hobeto! |
| 4
Telezirkoko ziten programa,
espezimen askoko organigrama.
Dena bete muskulu ta tupez,
gorputz lirainak zerebro hutsez...
Emma Gartzia,
hobe zun ETBn geratzia
ta ez hortano rebajatzia | 8
Errezan bila, hau katramila,
berriz Telezinco <i>a toda pastilla</i> ,
Lidia Lozanoren ahotsa
dirudi sirena ederren hotsa.
Ze jendillaje!
Jantzia zapata eta traje,
ikusteak dakar nahiko aje. | |

Mendian gora korrika

Iñaki Iturain

Doinua: Betroiarena

1
Lasterka, saltaka ta
batzuk antxintxika,
mendian jende asko
dabil korrika,
tropel handi batean
elkarri segika,
gora eraman dute
presa ta irrika,
maldaren epika
minaren kronika
lehiaren logika
inoiz ika-mika,
gauez ere badabil
hola hamaika. (Bis)

3
Neska-mutil gazteak
baten bat zaharra,
denen gogoan dago
denbora-marra,
erlojuko kronoa
hobetu beharra
eta bilakatzea
mendiko izarra
marka txit azkarra
hori da iparra
bada bai indarra
sua eta garra
ez dago geldituko
ditun malkarra. (Bis)

5
Mendia minututan
eta segundotan
neurtzen dute edota
kilometrotan
pisua gramotan ta
saria eurotan
iaz gailur askotan
aurten gehiagotan
dena numerotan
dugun garaiotan
nator ni bertsotan
proposatzekotan:
har dezagun mendia
sentsaziotan. (Bis)

7
Naturaren emaitzak
zaizkigu anitzak,
adibide hor daude
gure zuhaitzak:
urki eta lizarrak
pagoak, haritzak
arte ta ametzak,
astigar, hurritzak,
goizeko ihintzak,
tontorreko haitzak,
naturaren hitzak,
aukeran bakoitzak,
mendia oparitu
digu bizitzak. (Bis)

2
Zegamatik Aizkorri,
Horma Bertikala,
Hiru Handi, Ehun Mila,
lista zabala.
Ultra Trail, Super Mega,
Hiper Mundiala.
Ea kendu txandala
azaldu dortsala
ahalegin mortala
sobrenaturala
nahiz izan txakala
dinbili-danbala,
han goian Jainkomendik
babes ditzala. (Bis)

4
Ametza egin dut bart:
karrera bikaina,
helmugan txapela ta
gero xanpaina;
inork ez du emango
korrika nik haina,
nahiz bukaeran izan
kanpoan mingaina
oinpean orbaina
lehertuta zaina
hori da ordaina
pozik nago baina,
gaurkoan egin baitut
kriston azaina. (Bis).

6
Neke txiki sanoa
eta atsedena,
azalean epela
ekiarena,
belarraren usaina
eta liliena,
kukuaren kantua
ta kilkerrarena,
naturan barrena
libre utzi sena,
gailurra ez da dena,
bestela zer pena!
Bidea da mendiak
duen onena. (Bis)

8
Mendizale/mendia
dira osagarri,
ematea daukate
asko elkarri.
Bertsoak bukatzeko
hau dut aipagarri:
laurehun metrotara
dugu Kukuarri,
denon irisgarri
gogo lasaigarri
beti gozagarri
joan gaitezke sarri
lasai igo gaitezen
inoiz ez larri. (Bis).

Lapikoaren aurrean

Leire Zinkunegi

Mahaiaren inguruan jarrita, lapiko-plater-goilarak,
ene besoetan zaren heinean, topatu zaitu zure isladak,
aurrez, lodi, zikin alderantziz, harriduraz bizitzan jolasak,
lehenengoz sentitzearen gozamen eta atsegin plazerak.

Ahoan lau kika berriekin, koskatzen duzu oraina.
Gogoak oraintsu ekarri dit nire hastapenen bizipena,
nola anaia eta biok dastatu genun zoramena,
hala ispiluen laberintuan, zenbat jolas imajina.

Amak biltzen gintuen bitartean, sekulako indarraz,
behatz puntetatik hasi eta azal guztitik sartuaz,
odolean barna bihotzeraino, egiazko maitasun ta izanaz
horri esker jabetu izan naiz zaintzaren balioaz.

Ta hola gauza berri bakoitza zure eskuekin aztertzen,
ukitu, kolpatu, irrist egin, ta haiek saiatu harrapatzen
sugandilen antzera arrastaka, gorputz osoa erabiltzen,
barne indarra eta ekina trebezia bilakatzen.

Askotan amonak aipatua, jostailurik gogokoena
ez da zertan haurrari horretarako erosi dioguna,
nahiago izaten du, askotan, etxeko edozein tresna,
bilakatuaz bere ingurua eguneroko laguna.

Zein bizi zugar zein bizi nigan, arbasoen testigantza,
su epel, su bero, sukaldean elkar elikatzearen dantza,
izadiaren lotura ederrenaz konturatzean baitatza
maitekor, ulerkor eta pausuz pausu jostea gure norantza.

